

Bidean datoz



Elgoibarko Izarraren TONBOLA

Lehenik eta behin, opariak ematen eta antolakuntzan ibili zareten guztioi eskerrik asko.
Zuei esker 2.500 opari baino gehiago banatuko ditugu Elgoibarko Izarraren aldeko tonbolan.
Abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera, Kalegoen plazan batuko gara!



Bizikleta



Xiberoko otarrak



Ordulariak



Patineteak



Errigorako otarrak



Fianbrera elektrikoa



Produktu sortak



Ipuin sortak



Aire frijigailua



Kamisetak eta biserak



Agendak



Baloiak



Telebista



Hortz garbigailua



Termo berogailua



Glukosa neurgailua



Ardo botilak



Bidaiarako mailetak



Motxilak



Telazko poltsatxoak



Opari-bonoak

**eta sari
gehiago...**



ESKERRIK ASKO GUZTIOI!

- 2. Estankoa
- 40-15 Tennis Elkartea
- 650 Usurbil Bizi
- Abatetxe landetxea
- AEK euskaltegia
- Agurtzane ile apaindegia
- Ana ile apaindegia
- Ainara Arnaiz
- Alain Afflelou
- Aldaz hortz klinika
- Alfonso Guillo
- Alire estetika
- Alcorta Forging Group
- Alkorta bakailauak
- Altzola Beraseta baserria
- Amagoia gozo denda
- Amaia fruta denda
- Ametsa kafetegia
- Ana Mosacula
- Ane arte tailerra
- Ander Mujika
- Andres Alberdi
- Antxustegi zeramikak
- Anua errektifikatuak
- Aranburu bitxi denda
- Aranzadi
- Aauri lurindegia
- Armueta harategia
- Arrizabal Elkartea SL
- Astigarraga Kirolak
- Atelier Oihana
- Atxutxiamaika
- Azkue argazkiak
- Azpi's Bags
- Barrutia optika
- Beitia Arriola osteopatia
- Beitia Arriola hortz klinika
- Belaustegi jatetxea
- Beristain Mekanizatuak
- Berkoa S. Koop.
- Bikustik
- Bitxibizibitxi
- Bizkor bizikletak
- Bronymec
- Basque Sport Trainers
- Caramel goxokiak
- C.D. Elgoibar
- Catt Morkaiko Trail Taldea
- Cristina Garcia estetika eta Terapia
- Naturalak
- Danobat
- Dantzaneus
- Darama denda-tailerra
- Debabe Udal euskaltegia
- Dislegi Debabarrena Elkartea
- Doña Mercedes okindegia
- Ecenarro lantzeria
- Egur arte tailerra
- Eizagirre okindegia
- Elustondo
- El Gautxo pizzeria
- Elgoibarko Izarra
- Elgoibarko musika banda
- Elgoibarko Udal
- Elgoibarko Udal Ludoteka
- Elgoikar auto garbiketak
- Elkar
- Enean
- Eroski Maala
- Errigora taldea
- Errosario hagin klinika
- Esther Iburguren
- EITB
- Etxepe
- Etxe-Tar
- Euskal Herrian Euskaraz
- Euskaltzaleon Topagunea
- Exclusivas Pelegrin
- Fadek ile apaindegia
- Farmazabal
- G&M jantzi denda
- Gaiñdu
- Gararock taldea
- Garitaonandia botika
- Gertu fisioterapia
- Goimek
- Gora Musika
- Gorbea taberna
- Gotzon Garate Udal liburutegia
- Grabados Laser 2D
- Hair'S ile apaindegia
- Henko arropa-denda
- Herri Eskola
- Ibai-Ondo erretegia
- Iban Urizar
- Ibarrenea okindegia
- Ibon Serrano
- Idama ile apaindegia
- IMH Campus
- Makina Erreminta Museoa
- Iñigo Azpiroz
- In Leike Kultur Elkartea
- Industrias Banat
- Industrias Metala
- Ipar Irrintzi eski taldea
- Ipintza margoak
- Iriondo Altzariak
- Iriondo Kirolak
- Irune Arriola Andonegi botika
- Irune Iriondo
- Iturri taberna
- Izakara estudioa
- Jai Alai taberna
- Janire Erre
- Jakoba Errekondo
- Jasone Osoro
- Jesus Mari Makazaga
- Jon Gurrutxaga
- Jon Ander Olasagasti
- Jon Magunazelaia
- Jose Antonio ile apaindegia
- Juantxo burdindegia
- Judash musika taldea
- Kala lora denda
- Karkizano mertzeria
- Katxalote diseinuak
- Kilimon Trail (MTE)
- Kilometroak 25
- King-Kong taberna
- Kiñu
- Kresala Studio
- Kukulaisi Elkartea
- Kutxabank
- Laboral Kutxa Txirrindulari taldea
- Lagun Taldea Txirrindulari Elkartea
- Lagunak Textil-Hogar
- Lanbroa taberna
- Larre okindegia
- Leire ile apaindegia
- Lete jantzi denda
- Lizagarzar sagartokixa
- Lizardi
- Luma ilea apaindegia
- Maddi bitxiak
- Magi bitxiak
- Mahats ardandegia
- Maite Rementeria
- Malape taberna
- Mancisidor
- Mapfre aseguruak
- Marcajes Telleria
- Maria Urizar ile apaindegia
- Martina Barinagarrementeria
- Mausitxa baserria
- Mauxitxa txaranga
- MGS Seguros
- Mekanosa
- Meraki ile apaindegia
- Mendaroko Udal
- Mendaroko liburutegia
- Milar Bire elektrotailuak
- Mintxeta taberna
- Mintxeta Atletismo Taldea
- Morkaiko Mendizale Elkartea
- MTE
- Muzak musika taldea
- Naiz komunikabideak
- Nalai oinetakoak
- Nik Behar Dut diseinua
- Noaua! Kultur Elkartea
- Nuala Elkartea
- Oin berri podologia zentrua
- Olaia Martinez estetika zentroa
- Olaia Irigoien
- Olasa
- On informatika
- Patxi Azpirotz
- Patxi harategia
- Pitxintxu opari denda
- Puntueus fundazioa
- Real Sociedad fundazioa
- Roteta elektrizitatea
- Rural Kutxa
- Sahatzu harategia
- Sanlo Eskubaloit taldea
- Sigma jatetxea
- Sua Crossfit
- Suministros EVIA
- Surya belardenda
- Swisslan
- Tantaka taberna
- Taupada Antzez Taldea
- Tekniker
- Txankakua Elkartea
- Txapeldun taberna
- Txaimi
- Txitxibilaldiak
- Txoteko Ezpata musika taldea
- Txomin harategia
- Uxue Alberdi
- Xarlem Creations
- Yoga Esentzia
- Yudego farmazia
- Zalao Arnaiz
- Ziarda
- Zu + Ni ohialak
- ...



ZURE ALDE

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA
ABOKATUAK

J A U S O R O P L A Z A 3 , B E H E A

6 8 8 7 7 7 8 8 3

z u r e a l d e . e l g o i b a r @ g m a i l . c o m

2025 urte zoriontsu bat guztioi!



Abenduak 24, martitzena

Kalegoen plazan



Olentzero eta Mari Domingi, Maalatik hasita



Tonbola eta opariak



Taloak, txorizo pintxoak eta razioak,...

*Elgoibartarrok plazan bildu
eta elkarrekin egon
eta goatzeko eguna!*

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhua Andonegi. **Kazetariak:** Ainhua Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



x.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Ane Kortaberria

Ekintzailea

Urteko azken atala, ai ene!



***"Gabon zoriontsuak
opa dizkizuet denoi,
eta urte berri on bat!"***

Badakit oso tipikoa dela esatea denbora oso azkar pasatzen dela, baina berdin zait. Zer momentutan iritsi gara urte amaierara? Urteko azken alean idaztea tokatu zaidala esan didate BARRENEKOEK eta egia esan ezustean harrapatu nau urtea artikulua honek itxiko duela jakiteak. Baina bueno, esan bezala, Gabonak iristear daude eta kuriositatez... urteari amaiera emateko planik ba al duzue?

Nire kasuan Gabonak Elgoibarren eta urte berria kanpoan ospatuko dudun lehenengo urtea izango da eta, egia esan, desiatzen nago.

Honekin batera onartu beharra dut orain arte ez dudala gogorik eduki Gabonetan herritik ateratzeko, nire betiko planekin, lagun artean, familian... oso gustura egon naizelako eta besterik gabe ez dudalako beste plan aukera baten pentsatu. Izan ere, Gabonak kanpoan pasatzeko ideia ez zitzaidan asko gustatzen lehen, baina aurten desberdin egitea pentsatu dut. Noizean behin pixka bat aldatzea ondo dagoelako, ezta? Hala pentsatzen dut nik behintzat.

Gainera, nire buruari, Gabonak etxean edo kanpoan pasatzeko aukera izatea pribilegio bat dela gogoratu nahiko nioke, askok aukerarik ez dutelako eta askotan uste dudalako ez dudala behar adina baloratzen.

Hala ere, Gabon Zahar egunean Elgoibarren egotea nahi nuela argi nuen, noski! Izugarri gustatzen zaidalako egun horretan sortzen den giroa. Baina egia da, pentsatzen jarrita, batzuk egun horretaz disfrutatzeko beste batzuk lan eta lan ibiltzen direla (eta berdina gertatzen da beste egoera askorekin). Beraz, mila-mila esker lanean ibiltzen zareten boluntario guztioi!

Eta orain, bai kanpoan, bai etxean, edo zaudeten lekuan zaudetela ere, gabon zoriontsuak opa dizkizuet denoi eta urte berri on bat!

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Bizitzari eta heriotzari begiratzeko beste modu bat

Iraillean hasi ginen aurkezten, hamabost egunean behin gai desberdinen lanketa, hausnarketa eta barneratze bidea eginez: Arreta edo mindfulness, enpatia, ospakizuna, jokua, autoestimua, autozaintza, agurrak, heriotza, dolua, barkamena eta bizi testamentua landu ditugu, besteak beste.

Profesional desberdinen laguntza izan dugu hamar saiotan, 30 pertsona baino gehiago pasatu dira guretik, gehienak herritarrak, eta saio bakoitzean 18 eta 26 pertsona artean egon gara.

Berriro ere ikusi dugu zein beharrezkoa den gai hauei lekua egitea, bizi aberasgarriagoak bizitzeko gure egunerokoan.

Oso eskertuta gaude herritarren erantzunarekin, baita elkar partekatukoarekin ere, eta uste dugu oso arrakastatsua izan dela eginiko bidea. Mila esker bihotzez, zoragarria izan da.

Eskerrak baita ere Udalari, aurkeztutako proiektua onartzeagaitik, uste dugulako administrazioaren inplikazioa ere oso

garrantzitsua dela, gune honi ikusgarritasuna eta duen balioa emateko herri mailan.

Almaur elkartetik lanean jarraituko dugu, doako sentsibilizazio guneak aurkeztuz, eguneroko gertakizunak hobeto kudeatzeko, eta azken finean, hobeto bizitzeko baliabideak emanez.

**Iñaki Arregi Irizar, Dolubide profesionala
Almaur elkarteko zuzendaria**

Oharra

Eskuartearen duzun hau da 2024ko azken zenbakia. Eguberrietako oporren ostean, urtarilaren 7an itzuliko gara lanera, eta hilaren 10ean jasoko duzue hurrengo BARREna. Ondo pasa eta urte berri on!

BARREN



Antonio Irigoyen Mancisidor

Bilbon hil zen, 2024ko abenduaren 11n, 89 urte zituela.

**Borrokalaria nekaezina izan zinen
azken unera arte;
beti izango zara gure oroimenean.
Maite zaitugu.**

Etxekoak





Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

📞 943 744 112 📞 688 655 658



Maalako parkea oso egoera txarrean dago:

"Maalako parkeko teilatua garbitu dute, hala ere parkea ez dago ondo zainduta: itokinak daude, baina horrez gain, euria egiten duenean parkeko elementu asko busti egiten dira, teilatuak ez dituelako estaltzen. Txirristara eta esertzeko aulki asko bustita egoten dira, eta erabili ezinda geratzen dira. Lurra ere oso zikina dago, eta kristalak zein plastiko gogorrak daude nonahi. Neguan ordu asko ematen ditugu bertan umeekin eta eskertuko genuke zerbait egitea".



Gabriel Krutzelaegi kaleko espaloian baldosak solte daude:

"Arriskutsu daude baldosak gure kalean, eta estropezu egin nuen joan zen astean. Eskertuko genuke konpontzea".



Mintxeta kanpoaldeko belarra moztu dute:

"Eskerrik asko Mintxeta kanpoaldeko belarra mozteagatik, baina esan nahi nuke urte guztian zehar egin behar dela mantentze lana ingurune honetan, eta ez soilik Mugertza Krosa iristen denean".



Zortzi gaztaren artetik aukeratuko dute 2024ko gazta txapelduna, abenduaren 28an



Urteko ardi gaztarik onena aukeratzeko lehiaketa egingo dute abenduaren 28an, Gabon Zahar Ferian, eta 2024an antolatutako eta Jatorri Izendapeneko Kontseilu Erregulatzaileak araututako ardi-gazta lehiaketaren batean irabazi duten gaztagileek parte hartuko dute. Aurten zortzi gaztagilek irabazi dute txapelketaren bat, eta zortzi horien artetik aukeratuko dute 2024ko gazta txapelduna. Hiru txapel irabazi dituzten hiru gaztandegi nabarmendu behar dira: Aizpea, Kortaria eta La Leze. Lehenak Debako, Azpeitiko eta Legazpiko lehiaketak irabazi ditu eta Lekarozko Kortariak Bilbo eta Uhartre-Arakileko txapelketek gainera, Euskal Herriko Txapelketako lehen saria ere eskuratu du. Azkenik, Ilarduiako La Lezek Plentzian, Agurainen eta Ordizian irabazi ditu txapelak.

Mauixitxak ere aurkeztuko du gazta bat, Araiako lehiaketan lortutako garaipenari esker. San Bartolome jaietako Baserritarren Eguneako lehiaketa irabazi zuen Gaztaiñaditxuloko gazta izango da beste lehiakideetako bat; Intxaurrendoko txapelketa irabazi zuen Loperena, Gernikakoa irabazi zuen Larraberekin eta Eibarkoa irabazi zuen Baztarrikarekin batera. Parte-hartzaileek urte barruan egindako gazta bat aurkeztu beharko dute lehiaketara, eta antolatzaileek 40 euro ordainduko dizkiete gazta bakoitzagatik. Txapelketako irabazleak 1.500 euroko saria eta garaikurra jasoko ditu. 12:00etan hasiko da txapelketa, udaletxeko udalbatza aretoan, eta epaimahaikideen lana zuzenean jarraitzeko aukera izango dute herritarrek. 13:00ak aldera jakinaraziko dute irabazlea.

Informazio panel digitalak jarriko dituzte autobus geltokietan

Autobusen ordutegiei buruzko informazio eguneratua emango duten panel digitalak ipiniko dituzte Elgoibarko sei autobus geltokitan: Txankakua, Guass, Mupen, Olaso hilerria, Sigma-Estata eta Urazandiko zubi ondokoan. Urazandikoa zubia berritzeko lanak amaitzerakoan jarriko dute eta gainerako bostak datozen asteetan jarriko dituztela jakinarazi du Elgoibarko Udalak.



Fire Evo Company proiektuak irabazi du 2024ko IMH Ekintzailtza saria

Ekintzailtza, Talentua eta Industria Foroaren 5. edizioa antolatu du IMH Campusek, UPTEK elkartearekin (fabrikazio aurreratu eta digitalerako oinarri teknologikoko enpresen eta startup-en Espainiako Elkarte) batera eta, Elgoibarko Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Foro horren baitan banatu zuten Ideia Industrial Ekintzailearen saria, eta Fire Evo Company proiektua saritu zuten. Ingeniaritza Dualaren Eskolako Berrikuntza-Ingeniaritza Graduako Xuepeng Hu, Xabier Toribio eta Qiming Wang ikasleek osatutako taldeak 3D FDM inprimatze-teknologiarako berokuntza elektromagnetikoko burua sortzeko ideia aurkeztu zuen lehiaketara. Sari emaleek azaldu zuten, inprimagailu "arrunt" bat baino askoz adimentsuagoa eta eraginkorragoa da. Saritzat Elgoibarko Udalak emandako 300 euro jaso zituzten, Elgoibarko saltokietan gastatzeko erosketa-bonotan.

IMH Campusetik gogora ekarri dute duela 12 urte hasi zirela gazteen ideia-industrialak sustatu eta gauatzeko lanean, "ideia industrial bat gauatzeko dakarren zailtasunaz jabetuta". Ibilbide honetan hainbat enpresa industrial eta Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Aldundia bidelagun izan zituztela nabarmendu dute.



Sari banaketaren ostean, Fabrikazio Aditiboaren inguruko mahai-ingurua egin zuten, Ekintzailtza, Talentua eta Industria Foroaren baitan. Lau hizlari aritu ziren UPTEK elkarteko Jon Nuñezek moderatutako saioan: Xabier Cearsolo, IMHko Fabrikazio Aditiboko arduraduna, Naiara Zubizarreta, AFM Clusterreko Addimat eta Stech-eko zuzendaria, Loreto Alcibar, IMHko Fabrikazio Aditiboko unibertsitate espezializazioko ikasle ohia eta egun ADDIMENeko diseinu-ingeniaria, eta Jaime Herrero, IMHko Berrikuntza Ingeniaritzako ikasle ohia eta egun MAUSA 3Dko teknologia eta materialen arduraduna.

Sakelako telefonoaren arriskuez ohartarazteko kartelak anbulatorioan

Altxa Burua mugimenduak kartel bereziak prestatu ditu anbulatorioetan jartzeko eta Elgoibarko Amatau Mobila taldekoek bat egin dute kanpaina horrekin. Elgoibarko anbulatorioko pediatria sailean sakelako telefonoak dituen arriskuez ohartarazteko kartelak jarri dituzte, eta pediatriak gai horri buruzko argibideak ematen dizkie guraso zein umeei. Horrez gain, Amatau Mobila taldeak, Udalarekin elkarlanean sortutako dekalogoarekin ere banatuko dute anbulatorioan, pantailen erabilera egokia egiteko aholkatuz.



2.500 opari baino gehiago banatuko ditu Elgoibarko Izarrak abenduaren 24ko tonbolan

Elgoibarko Izarrak tonbola jarriko du abenduaren 24an Kalegoen plazan, eta 2.500 opari baino gehiago banatuko ditu herritarren artean. Elgoibarko eta Mendaroko norbanako, elkarte, enpresa eta eragileek emandako opariak dira guztiak, eta elkartetik eskerrak eman dizkiete guztiei. 11:00etan zabalduko dute tonbola, eta 14:00ak aldera arte egongo dira opariak banatzen. Euro batean salduko dituzte boletoak, eta lautik batek oparia izango du. Hala ere, oparirik gabe gelditzen direnek ere izango dute oparia eskuratzeko azken aukera bat. Izan ere, saririk gabeko boletoen artean telebista bat zozkatuko dute. Saritu gabeko boletoak gorde egin behar dira. Zenbatuta daude guztiak, eta 14:00etan



egingo dute zozketa, Kalegoen plazan bertan. Zenbaki sariduna momentuan agertu beharko da. 10 minutu izango ditu lehenengo sarituak oparia jasotzeko, eta ez bada agertzen, beste zenbaki bat aterako dute, irabazlea agertu arte.

Mus txapelketa egingo dute bihar, Batzokian

Elgoibarko Eusko Alderdi Jeltzaleak Gabonetako mus txapelketaren zazpigarren edizioa antolatu du biharko. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da, eta ordu erdi aurretik eman beharko dute izena parte-hartzaileek. Izena emateko 20 euro ordaindu behar dira. Bikote irabazleak bildutako diruaren %50a eta lau lagunentzako afaria irabaziko du. Bigarren saria otarrea eta bildutako diruaren %30a izango da, eta hirugarrena otarrea eta bildutako diruaren %20a. EAJtik herritarrak animatu nahi dituzte parte hartzera.

San Tomas eta Olentzero, bihar Altzolan

Altzolako Auzo Elkarateak antolatuta, San Tomas Eguna ospatuko dute bihar Altzolan, eta gainera, Olentzero eta Mari Domingiren bisita ere jasoko dute. Horrez gain, Eibarko ertzain etxera egingo dute bisita abenduaren 27an. 10:00etan batuko dira Altzolako frontoian, eta eguerdirako itzuliko dira. Bi ekitaldi horietan parte hartzeko interesa dutenek izena eman beharko dute telefono honetan: 635 753 447.

King Kong zubi zaharraren azken zatia kendu dute



King Kong zubia berritzeko obra bigarren fasean sartuta dago. Urrian itxi zuten zubia oinezkoentzako, eta 11 hilabetez egongo da itxita. Azken bi hilabeteotan zatika kendu dute zubi zaharra, eta joan zen zapatuan kendu zuten ibai gainean geratzen zen azken zatia. Grua handi batekin eraman zuten, eta ikusmin handia sortu zuen herritarren artean. Obrak bide onean doazela jakinarazi dute Udaletik.

Danobatgroupek hiru Bikain ziurtagiri lortu ditu



Danobatgroup taldeak Eusko Jaurlaritzak emandako hiru Bikain ziurtagiri eskuratu ditu: taldeko zerbitzu zentralak, Danobat kooperatibak, eta taldeko partner teknologikoa den Ideko zentro teknologikoa urrezko hiru akreditazio jaso dituzte, aintzatespen-maila gorena. Soraluze enpresak, berriz, zilarrezko ziurtagiriaren mailarik altuena eskuratu du. Lorpen horrek sendotu egiten du taldeak euskararekin duen konpromisoa.

Euskara kudeatzeko lehen hizkuntza plana ezarri zuenetik 24 urte pasatu dira, eta gaur egun, taldeko enpresa guztiek dituzte euskara-planak eta Bikain kalitate-ziurtagiria hizkuntza-kudeaketan. Aurten lortutakoei Goimek kooperatibak 2023an jasotako urrezko akreditazioa gehitu behar zaie. Erakundeko esparru guztietan euskara integratzeaz gain, Danobatgroup aitzindaria izan da hizkuntza baliabideak sortzen, hala nola makina-erremintaren sektoreko hiztegi terminologikoa eta 2030 Agendari lotutako hiztegi eleanitza. Era berean, Danobatgroupek bere inguruan euskal gizarte osoan euskara sustatzeko garatzen diren hainbat ekimenetan laguntzen du: Korrika, Euskaraldia edo Euskararen Egunarekin lotutako jardueretan, esaterako, eta Euskaragileak, Mondragon Korporazioko Euskara Batzordea eta INDEUS bezalako hizkuntza erakundeen parte ere bada.

Haur eta nerabeentzako Gabonetako parkea jarriko dute Lekuederren, urtarilaren 2tik 4ra

Elgoibarko Udalak haur eta nerabeentzako Gabonetako parkea jarriko du Lekuederren urtarilaren 2tik 4ra. 11:00etatik 14:00etara zabalduko dute goizez eta 16:30etik 19:30era arratsaldean. Adin tarteen arabera banatuko dute gunea, eta bakoitzak bere adinari dagozkion atrakzioak izango ditu aukeran. Puzgarriak, futbol simulagailua, ohe elastikoak, barredora eta indarrezko mailua egongo dira, besteak beste.

Antonio Irigoien Manzisidor hil da, Elgoibarko Izarrako presidente izandakoa



Abenduaren 11n hil zen Antonio Irigoien Manzisidor, 89 urte zituela. Kulturazalea eta euskaltzale amorratua zen, eta Elgoibarko Izarrako presidente izan zen, 1980an. Alberto Agirreazaldegi hartu zion erreleboa karguan eta Andres Alberdiri eman, 1981ean. Bere agintaldian sortu zuten Elgoibarren bertso-eskola, Angel Ugarteburu irakasle zela. Gero etorri zen Etxegiña Bertso Paper Lehiaketa martxan jartzea, 1982an, eta hastapen haietan Irigoien eginahala handia izan zen. Maketagile aritu zen urteetan Irigoien tailerrean, eta gero, Portugaletako Euskara teknikari ere izan zen. Bilboko Udalean ere aritu zen lanean.

Euskotreneko Administrazio Kontseilura jo dute Altzolako Tren Geltokia Bai plataformakoek

Azaroaren 16an egin zuten Trenaren aldeko Borroka Jardunaldiaren ondoren, Altzolako geltokia mantentzeko aldarrikapenak "aurrerapauso garrantzitsua" eman duela azaldu dute trenaren alde lanean ari den plataformatik. Azken asteetan Euskotrenen ordezkariak duten sindikatuekin lanean aritu dira plataformako kideak, geltokia mantentzearen aldeko dokumentu bat adosteko, eta idatzi hori Euskotreneko Administrazio Kontseiluan aurkeztu dute. Kontseilu horretan Mugikortasun Iraunkorreko sailburu Susana Garcia Chueca eta Euskotreneko zuzendari nagusi Javier Seoane izan dira, eta ELA, LAB eta CCOO sindikatuek agiri bateratua aurkeztu dute. Bertan, besteak beste, Altzolatik igarotzen diren 32 trenak geltokian gelditzeko eskatu dute.

Era berean, Altzolako geltokia mantentzeko borroka gero eta babes handiagoa duela azaldu dute. Gogoratu dute, bestalde, Altzola



Eremu Degradatu gisa katalogatuta dagoela 1999tik, eta haien ustez, tren bezalako zerbitzu publikoak mantentzea eta hobetzea funtsezkoak dira auzoa biziberritzeko. Hiru hilabete barru batuko dira berriro Euskotreneko Administrazio Kontseiluan, eta bitartean, geltokia mantentzeko borrokan jarraituko dutela azpimarratu dute.

Urtarrilaren 11n Bilbon egingo duten presoen aldeko manifestaziora joateko autobusa egongo da Elgoibartik

Urtarrilaren 11n euskal presoek eskubideen aldeko manifestazioa egingo dute Bilbon, eta hara joateko autobusa antolatu dute Elgoibartik. Aurten presoek etxeratzea eskatuko dute, elkarbizitza,

konponbidea eta bakearen bila aurrerapauso nabarmena izango litzatekeela arrazoituta. Autobusean joateko interesa dutenek Jai Alai, Iturri edo Lanbroa tabernetan eman beharko dute izena.

Doako gaueko taxi zerbitzua jarriko dute abenduaren 28an eta 31n

Elgoibarko Udalak doako gaueko taxi zerbitzua jarriko du herritarren eskura Gabon Zahar Azokan, abenduaren 28an, eta Urtezahar gauean, abenduaren 31n. Gabon Zahar Azokaren kasuan, zerbitzua 00:00etatik 06:00etara egongo da martxan, eta Urtezahar

gauean, berriz, 02:00etatik 07:00etara. Zerbitzua udalerrira barruan ibilbideak egiteko bakarrik egongo da erabilgarri. Txarredunako biribilgunetik abiatuko da taxia, eta iritsiera-ordenaren arabera funtzionatuko du, aldeztu aurretik erreserbarik egiteko aukerarik gabe.



TXANKAKUA

ELGOIBARKO MERKATARIAK

*Elgoibarren
bizi, erosi
herriak irabazi*

3.000 €

500 €-ko 3 sari eta 100 €-ko 15 sari!
(zozketa 2025ko urtarrilaren 7an)

**Urtarrilaren 3an Elgoibarko kaleetan zehar
TXU-TXU trena ibiliko da!**

11:30 - 13:30

16:00 - 19:00



**Gabon
zoriontsuak!**



ELGOIBARKO MERKATARIAK



ELGOIBAR
UDALA
AYUNTAMIENTO





BELAUSTEGI
— BASERRIA —

*Etxekoekin batera
gozatu ospakizunak,
Lekua har dezatela
bakeak eta maitasunak,
Urte berri on, lagunak!*



SAN MIGEL GAINA, 44 . 20870 ELGOIBAR



943 74 31 02 WWW.BELAUSTEGI.COM

ek!

Eibarko ...eta kitto!
Euskara Elkarteko
hedabidea

dkt

Debabarreneko
Komunikazio
Taldea



Bideak eginez

JASONE OSORO ETA ZALOA URAIN IDAZLEA ETA MUSIKARIA

Kultura arnasten da Eibarko Coliseo antzokian. Goi-mailako artistak igo dira bertako eszenatokira eta han elkartu ditugu Debabarreneko bi kultur sortzaile handi: Jasone Osoro eta Zaloe Urain. Idazketa eta ahotso erabiliz asko adierazi dute biek, eta oraindik asko dute esateko.

Testua eta argazkiak: Ekhi Belar.

Bideoa: Yanire Sagredo.

Zuentzat zer da emakumea eta kultur sortzailea izatea?

Zaloe Urain: Badirudi bi titulu ezberdin direla, baina azkenean ni neu naiz. Emakumea naiz eta baita sortzailea ere. Ez da bilatu dudan zerbait, horrela etorri zait.

Jasone Osoro: Bai, zerbait berezkoa. Nik ere antzera sentitzen dut neure burua. Emakumea naiz, baina bai sentitu izan dut edo sentiarazi didate etiketa moduko bat dela. Orduan, alde batetik, emakume bezala bai sentitu dut nahi dugun tokira iristeko oztopo gehiago ditugula eta, iristen garenean ere, emakume bezala hartzen gaituztela, ez egiten dugun sormen lanarengatik bakarrik; eta bestetik, sentiarazi didate emakumea naizelako iritsi naizela hainbat tokitara. Kontraesana dirudi. Gorputzaren zama sentitu izan dut. Urte asko egon naiz naizena aldarrikatzen eta orain bakeak egiten ari naiz: Jasone Osoro naiz, harro nago eta hau da nire ibilbidea literaturan.

Z.U.: Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak izate hutsagatik. Adibidez, orain dela gutxi kontzertu bat lotzeko deitu zигuten eta euren arrazoia zen emakume bat nahi zutela eszenatokian. Bai, emakumea naiz, baina ez deitu emakumea naizelako bakarrik.

Nolabait esatearren, kupoa betetzeko?

J.O.: Niri ere gertatu izan zait. Oraindik antolatzen dira 'Euskal literatura eta emakumeak' moduko saioak, baina 'Euskal literatura eta gizonezkoak' ez da antolatzen, ezta? Lehen liburua aurkeztu nuenean prentsako titular batek 'Emakumea eta gaztea' zioen. Badira gauza batzuk gizonezkoek ez dituztenak bizi. Gaur ere hemen gaude ez sortzaileak garelako baka-



“Gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta kontua ze guapa agertzen nintzen izatea. Bale, baina zer esan dut?”

“Barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat”

JASONE OSORO ELGOIBAR, 1971

Informazio Zientzietan lizentziatu ondoren, kazetaritza lanetan eta telebistan jardun zuen hainbat urtetan aurkezle eta gidoilari gisa, egunkari eta aldizkarietan zutabeak idazteaz gain, baina literatura da bere bizitza. ‘Tentazioak’ izan zen bere lehen lana eta harrezkero hainbat eleberri, saiakera eta biografia idatzi ditu haur, nerabe zein helduentzat, sariak ere eskuratuz.



“Badirudi guk egindako lana beste optika batetik begiratzen dela emakumeak garelako”

“25 urte hauetan abeslari bezala hain ikusgai egotea gainean eraman dudan oso zama latza izan da”

ZALOA URAIN EIBAR, 1976

Eibarko Kokein taldeko abeslaria da. Taldeak 25 urte bete ditu aurtien eta ‘Bidea Da Helmuga’ disko berriaren argitarapenarekin ospatu dute urteurren berezia. Bere ahotza euskal musikaren ikurretako bat da eta erreferentea izan da musikan trebatu nahi izan duten askorentzat. Sortzeaz eta abesteaz biziki gozatzen du, eta eszenatoki gainean bizi den magia gustatzen zaio.

rrik, baizik eta emakume sortzaileak garelako, eta gizonezko bati ez liokete esango kulturagintzari buruz berba egin nahi dutenik gizonezkoen ikuspegitik. Hori oraindik ez da gertatu. Beraz, horrek esan nahi du oraindik gure kasua arraroa dela. Zergatik? Urte askotan plaza publikoa gizonezkoena izan delako.

Z.U.: Eta jarraitzen du horrela izaten!

J.O.: Edozer egiten dugula ere epaitu egiten gaituzte emakumeak izate hutsagatik eta ez dakit gizonezkoek hori bizi duten. Gizonei beraien lanarengatik epaitzen zaie, baina ez gizon baten gorputzean jaio direlako.

Z.U.: Musikan egindako ibilbide guztia lau gizonezkoekin partekatu dut eta beraiei eskatu zaiena eta niri eskatu zaidana oso ezberdina izan da beti. Adibidez, itxuraren aldetik. Badirudi guk eder egoteko behar bat-edo dugula eta horrela sentitu izan dut. Kasu askotan ustez laudorioak direnak entzun ditut, “oso polita da” eta horrelakoak, baina horrek zer zerkusi du egiten ari naizen lanarekin? Eta niri esaten badidazu, besteei zergatik ez diezu berdina esaten? Taldekideak aita eta ama izan garen kasuetan ere, gure rolen inguruan antzera gertatu da. Badirudi emakume eta ama izate horretan sortzaile izateari utzi beharko geniokeela amatasuna bizitzeko, baina taldekideen kasuan inoiz ez dut entzun horren inguruan galdetu dietenik.

J.O.: Lehen, itxuraren kontua aipatu duzu eta, nire kasuan, atzean egiten dut lana, bakardadean, ez dut talderik behar eta ez naiz publiko aurrean aritzen, are gutxiago zu bezala, talde bateko abeslaria izanik, baina bai gertatu izan zait telebistara tertuliakide moduan joan eta jendeak aipatzea ze guapa agertzen nintzen eta horrelakoak. “Bale, baina zer esan dut?”. Gizon bati hori esango liokete? Agian bai, ez dakit, baina argi dago oso ezberdin ikusten gaituztela, kanpoko begirada oso ezberdina dela.

Z.U.: Telebistan agertzen garenean betiko komentarioa da: Ze guapa zeunden! Inoiz moskeatu egin naiz eta esan didate ea zergatik haserretzen naizen gauza polit bat esateagatik, baina nire eginbearra ez da hor polita agertzea, nire sorkuntza erakustea baizik, ez neure burua. Egia da nire kasuan oso ikusgai nagoela eta hori 25 urte hauetan gainean eraman dudan oso zama latza izan da.

J.O.: Gainera, irudi fuerte bat proiektatzen duzu, emakumeengan hain ohikoa ez dena. Uste dut, gainera, rol hori nahita hartzen dugula. Publiko aurrean agertzea ez da erraza eta mutilak beharbada horretara ohituago daude, hala hezi dituztelako, baina gu beti hezi gaituzte bigarren plano batean egoteko, periferian. Besteak zaintzeko, ez zaintzeko hainbeste gu. Orduan, bat-batean demaseko indar bat proiektatzen duzu.

“Helmugak izan ditzakegu, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela”

‘Bidea Da Helmuga’ kaleratu du Kokeinek. Bideaz gozatzea izan duzue helburu?

Uste dut hori izan behar dela helburu finkoa. Helmugak izan ditzakegu eta nora heldu nahi dugun tokira ilusioz begiratzea ondo dago, baina inoiz ahaztu gabe egiten dugun bide hori ezinbestekoa dela eta horretaz gozatu, landu, mimatu eta batzuetan sufritu behar dugula. Disko berriarekin maiteminduta nago eta toki guztietatik bidearen inguruko gauzak eta hausnarketak iristen ari zaizkidala iruditzen zait (barreak).

ZALOA URAIN

tatzen duzunean, nahiz eta gero erreala ez izan, hori ere epaitu egiten da.

Z.U.: Niretzat zama latza da. Atzera begira, agian bai proiektatu dut pertsona indartsu baten irudia. Hori bai, gero zera esan didate: “Ez zara horrelakoa”. Ez dakit ogro bat naizela uste duten edo. Ez naiz ogro bat, baina indartsua banaiz. Zein puntutara arte izan den autosegurtasuna lortzeko jarrera bat? Ez dakit, baina egia da urte askotan oso gogorra egin zaidala. Nire gogoaz atzean agertzea eta inork ez ikustea zen. Abesteaz aparte, nire itxura epaitzen zen, edo nire izaera momenturen batean. Eskerrak urteekin gauzak ikasten diren eta norberak bere buruarekin bakea egiten dituen. Orain momentuan, zentzu horretan bake pixka bat daukat neure buruarekin eta pixka bat paso egiten dut, baina oraindik ere emakumeok horrelako gauzak entzuten ditugu eta, tamalez, entzungo ditugu.

Belaunaldi berriek horrelako egoerak bizitzen jarraituko dutela uste duzue?

Z.U.: Biok antzeko adineko alabak ditugu, ezta? Nire esperantza da atzetik datozen belaunaldi berriek



beste modu ezberdin batean hartzea hau guztia. Horri begira egoten naiz: alde batetik, euren irudia eta emakume zentzua zaintzeko nahia dago eta, aldi berean, ez edukitzea zamarik edo komentatzen ari garen etiketarik.

J.O.: Gure alabek gurekin alderatuta duten abantaila bat da guk genituenak baino ispilu gehiago dituztela. Arlo ezberdinetako emakumezko erreferenteak dituzte eta hori asko da. Badute non begiratu. Eskubidea eta aukera edukitzeaz gain, gogoaz edukitzea beharrezkoa da erreferenteak izatea, hau da, emakume bat ez dakit nora iritsi dela edo zerbait lortu duela ikustea. Gu hasi ginenean, orain dela ia 30 urte, oso gutxi zeuden. Nazioarte mailan tira, baina Euskal Herrian, musikan eta literaturan, zenbat emakume zegoen?

Z.U.: Egon, beharbada batzuk egongo ziren, baina asko eta asko etxean sartuta eta ez oholatza gainean. Eta berdin, egongo ziren idatzi bai baina publikatzen ez zutenak ere.

J.O.: Ez naiz oso datu zalea, baina batzuetan tes-tuingurua ulertzen laguntzen dute. 1982.urte ingu-



ruan, Euskal Idazleen Elkarte sortu zenean, idazleen %9 bakarrik zen emakumezkoa eta gaur egun %36 inguru da. Oraindik ez gara erdira ere iristen. Egia da 2020tik hona bazkide tu diren idazleen %50 emakumezkoak direla. Poliki-poliki aldatzen doan zerbait da. Niretzat garrantzitsuena da emakume hauen ahotsak indartsuak direla, zeresana dutela, eta sorkuntza mailan gauza eder eta on asko egiten ari direla. Hori ikaragarritzko erreferentzia da orain hazten dauden horientzat.

Z.U.: Lortu dugun gauzarik onena eta indartsuena plazaratzen hastea da. Indartsu sentitzea eta “nirea zergatik ezin da beste honek egiten duena bezain ona izan?” pentsatzea. Etxean hori egin dugun zailtzarrik ez dut, baina plazaratzea beste gauza bat da. Horrela, gazteei erreferente bezala pentsarazi ahal izan diegu. Orain dela gutxi Zea Maysekin ‘Elektrizitatea’ abestiaren bertsio berria abesteko aukera izan dut, eta zeinen polita izan den hain adin eta estilo ezberdinetako emakume abeslariarekin elkartzea sentsazio eta energia berdinak sentituz. Hor jarri da agerian musikan gauden emakumeok zenbat

gauza egiten ditugun. Geratzen zaiguna plazaratzea da, baina plazaratu ez bakarrik emakumeak izateagatik, baizik eta egiten dugun lanarengatik.

Inoiz izan duzue kultura arloko ibilbidea amaitzeko gogoa?

Z.U.: Zortez, ez. Taldekideekin oso zorteduna izan naiz beti eta hor babesu sentitu dut. Ez da babesu behar izan dudalako, baizik eta talde moduan zerbait indartsu sortu dugulako. Espero dut eurek ere niganik babes hori sentitzea. Momenturen batean pentsatu izan dut agian egunen batean ez dudala edukiko hain indartsu edo dena delakoa izateko gogoa, batzuetan igortzen dudan irudia ez baitator bat sentitzen dudanarekin. Agian indartsu eman dezaket, baina batzuetan goxo-goxo egon nahi dut. Momentu horietan sentitu izan dut hau guztia larregi dela niretzat, baina bestela ezetz esango nuke.

J.O.: Musika taldeen kasuan, aipatu duzun babes hori oso garrantzitsua dela uste dut. Konplizeak edukitzea. Lan horretan jarraitzeko gogoa eta energia ematen dizu. Idazle izatea oso ezberdina da. Bakarkako lana da. Orain sare gehiago dago,



sare sozialen bitartez elkar ezagutzeko aukera gehiago dago, baina nire sasoian ez zegoen horrelakorik eta nire ibilbidea oso bakartia izan da. Bakardadeak pisatzen du. Pentsa: emakumea, gaztea (orain jada ez naiz hain gaztea), bakardadea eta askotan egurra ematen dizutela sentitzea. Behin baino gehiagotan pentsatu dut idazten jarraitzea, baina niretzat bakarrik. Publikatzea, proiektu bat defendatu beharra eta nolabaiteko irudi bat proiektatu behar izatea... Hori egiteko energia falta izan zait noizbait, nekeza da. Beste alde batetik, barrenean dut sorkuntzarekiko behar natural bat eta beste guztia onartu egiten dut, mamu hori tarteka agertu arren.

Zertarako sortzen duzue?

J.O.: Ez dut esango sortzeak sendatu egiten duenik, baina bai uste dut gauza asko ulertzen eta kanpora ateratzen laguntzen duela. Bolada batean ezer sortu gabe egoten banaiz, izaeran eragiten dit. Zitalago nago. Gero, egoera desblokeatzen denean, automatikoki hobeto sentitzen naiz. Beharbada horregatik sortzen dugu, badelako era bat katarsi moduko bat egiteko eta musikaren edo letren bitartez gauzak kanpora ateratzeko.

Z.U.: Niri, adibidez, abestien letrak idazteak asko balio dit barruak askatzeko. Zentzu horretan gauza

bitxia gertatzen zait. Disko berria kaleratu dugu berriki eta abesti batzuk entzun ditudanean orain konturatzen naiz gehiago kantua idatzi nuenean zer pentsatzen ari nintzen. Gauza horiek deskolokatu egiten naute: nola bota nuen hori eta zein puntutara arte ez nintzen kontziente hori botatzen ari nintzela? Orain bertan sortzea ezinbesteko gauza bat da niretzat. Esan duzun bezala, ez badut sortzen, igarri egiten zait.

Nola bizi duzue zuen sorkuntzen hartzaileekin duzuen harremana?

J.O.: Idazleok ez ditugu kontzertuak eskaintzen, baina gure boloak eskoletan egiten ditugun saioak izaten direla esan ohi dut. Saio horietatik demaseko txutearekin irteten naiz, irakurlearen maitasuna jasotzen duzulako nolabait esatearren. Estimaten dute zu bertara joatea, zu ezagutzea, liburutik gusatu zaiena eta gustatu ez zaiena partekatzea... Oso aberasgarria da.

Z.U.: Imaginatzen dut adrenalina puntu bat dagoela hor. Batzuetan zaila izaten da hortik jaistea! Niri gertatu izan zait kontzertu indartsu baten ostean taupadak jaisten saiatzea eta ezin. Gero, biharamun emozionala edukitzen dut. Kontzertuan bota eta sentitu duzun guztiarekin indarra hartzen duzu eta, gero, biharamun hori dator.



J.O.: Ikusle bezala ere, kontzertu indartsu batera joan naizenean oso ohikoa da nik hori sentitu izan badut, musikariek zer sentituko duten pentsatzea. Demaseko txutea imajinatzen dut, baina gero hori kudeatzen jakin behar da.

Z.U.: Sortzea gustatzen zaigu, baina ez guretzat bakarrik, jendeari erakustea ere gustatzen zaigu-eta. Horrek gero prezio bat du: industrian murgiltzea. Ezetz esaten duenak, gezurra dio. Etxean abesten eta jotzen pozik egongo banintz, primeran, baina nik hartu dut egiten dudana azaleratzeko erabakia eta jendearengana iristeko gogo horretan prezio batzuk ordaintzen ditut. Hori bai, bueltan demaseko erantzuna jasotzen dut. Horrek guztiak oso bizirik sentiarazten nau. Eguneroko gauzeekin aurrera eta atzera gabiltza, eta kontzertu batean publikoarekin hartu-eman sortzen denean oso bizirik sentitzen naiz. Momentuaz gozatzen dut.

Nola kudeatzen duzue sorkuntzaren eta kultur-industriaren eskakizunen arteko oreka hori?

J.O.: Alaba jaio zenetik idaztetik bizitzeko erabakia hartu nuen eta profesionala naiz. Horrek disziplina ekarri dit. Kalitatezko denbora sorkuntzari eskaini ahal diot orain, ez lehen bezala, beste lan bat nuen-eta. Aldaketa ona izan da, baina egia da batzuetan presioa sentitu dudala. Adibidez, ea bi urtean behin,

“Bideari eustea eta irautea garrantzitsua eta arrakastatsua dela uste dut”

‘Arrakasta’ da zure azken lana. Zein da zure ibilbideko arrakastarik handiena?

Oso harro nago eta uste dut arrakastatsua dela bideari eustea, hor irautea eta parte sentitzea. Batzuetan erraza izan daiteke nekatuta zaudela esatea eta beste gauza bat egiten hastea, baina beste alde batetik badago zerbait sorkuntzara lotzen zaituena eta pozik nago neure buruari erakutsi diodalako gai naizela. Hori garrantzitsua eta arrakastatsua da niretzat.

JASONE OSORO



gutxienez, liburu bat ateratzen dudan, nahiz eta liburuen salmentaz bakarrik ez bizi eta beste gauza batzuk egin izan. Dena dela, horrela martxan zaude, eta irudimenak eta sormenak akzioa behar dute. Hori ere entrenatu egiten da eta, zenbat eta gehiago sortu, orduan eta aktiboago zaude. Sorkuntzak kalitatezko denbora eta lana behar du. Toki batera edo bestera iristearen edo ez iristearen arteko aldea. Horra iristeko egiten den lana izaten da. Lanik egin gabe, ez da ezer lortzen.

Z.U.: Nik ez dut horrenbesteko zorterik, ez naiz musikari izatetik bizi. Nahiko nuke, baina ez, beste lan bat daukat eta gustura egiten dut gainera. Sarritan komentatu dut hori taldekideekin, lagunekin eta musikaz bizi diren batzuekin. Batzuetan bai sentitu izan dut bigarren mailako musikaria naizela. Azkenean, denbora gehiena beste lan bati eskaintzen diot eta bizitzeko behar dudun dirua ez da musikatik iristen. Hori bai, musikaz bizi direnek beti esan didate hori burutik kentzeko. Dena dela, bere alde onak ere baditu. Esan duzun bezala, inspirazioa ez da bat-batean etortzen. Gogoratzen dut pandemian Miren Narbaiza musikari eta lagunak esaten zidala sasoi aproposa zela bakarkako diskoa ateratzeko, baina nik esaten nion justu orduan, egoera horretan, ez zitzaidala iritetan. Gauza beltz baino beltzagoak iritetan zitzaizkidan bakarrik. Banuen denbora, baina presio horrek

ez zidan lagatzen. Presioa berez ez da txarra, martxan eta aktibo jarri ahal dizu, baina nire kasuan, musikaz bizi ez naizenez, ez dut presio hori sentitzen. Beraz, Kokeinekin egiten duguna horrela sentitzen dugulako egiten dugu.

J.O.: Izaera kontua ere bada. Inoiz ez nuke esango sorkuntzatik bizi den norbait hortik bizi ez den beste bat baino idazleago edo musikariago denik. Are gehiago, batzuek sorkuntza erromantizatuta dute eta pentsatu izan dut batzuentzat sorkuntzatik bizitzea kalterako zela. Dirua tartean sartzen baldin bada, kalterako izango balitz bezala. Bakoitzak ahal eta nahi duena egiten du, eta dena dago ondo.

Laburrean

Liburu bat?

J.O.: 'Termita', Garazi Albizuarena.

Z.U.: Anariren 'Gari eta goroldiozko' dut irakurtzeko.

Disko bat?

J.O.: 'Ilunpean jai duzu', Txoteko Ezpata.

Z.U.: Nirea, ezin dut besterik esan orain.

Zer eskatu diozue Mari Domingiri?

J.O.: Inspirazioa.

Z.U.: Sorpresa.



*2025erako
irribarre asko opa dizkizugu!*



hortz klinikak · clínicas dentales

943 366 377

Lasarte-Elgoibar-Tolosa




TXILLARRE EKODENDA

Baratzeko barazki eta arrautzak
Gertuko ekoizle txikien produktuak
Granelak (elikagi eta garbiketa produktuak)
Belardenda
Etxerako zerbitzua

 p.ekologikoak@gmail.com
Telf: 635008496





AGURTZANE c.b.
ileapaindegia

GABON ZORIONTSUAK!
Santa Ana, 18 - Elgoibar
943 741 864



Revot Eibarbus
grupo Jon Ander
www.grupojonander.com

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

jonander@jonander.com - eibarbus@eibarbus.com
943 201 733

GOKI

erreformak

Gabon zoriontsuak!

Olaso pol, 15 - 68 pab
Tel. 943 74 42 23
ELGOIBAR

Irizar, 1 behea
Tel. 943 76 53 42
BERGARA

Errabal, 19 behea
Tel. 943 12 57 41
SORALUZE

www.gokierreformak.com

2024 urteari errepasoa





◀URTARRILA: Green Capital enpresak atzera egin eta Karakaten zentral eolikoa egiteko zerabilen asmoa bertan behera laga zuela jakinarazi zuen Karakate Bizirik plataformak. Karakaten bi haize errota eraiki asmo zituzten. Albisteak ospatzeko jaia antolatu zuten martxoan Karakate Bizirik plataformakoek herriko beste zenbait eragilarekin lankidetzan.



▲URTARRILA: Altzolan tren geltokia mantentzearen alde 5.400 sinadura batu zituzten. Tren Geltokia Bai plataformako kideek ekintza ugari egin dituzte urte osoan zehar tren geltokia defendatzeko: Arartekoaren bulegoan egin zuten bilera eta Gipuzkoako Batzar Nagusietara ere eraman zuten beraien borroka. Azaroan, bestalde, trenaren eta garraio publikoaren aldeko jardunaldia antolatu zuten.

▲URTARRILA: Abenduaren 30ean 40 urte bete ziren Mendaroko Udala estreinakoz eratu zenetik, eta ospatzeko, hainbat ekintza egin zituzten. Abenduaren 29an egin zuten ekitaldi ofiziala udaletxeko udalbatza aretoan, eta lehiaketa bat ere antolatu zuen Udalak, herriko historia eta ondarea ezagutarazteko. Urtarrilaren 7an, berriz, Ruper Ordorikak kontzertua eman zuen, Gararocken eskutik, eta Udalak diruz babestuta.

ELGOIBARKO GABON ZAHARRETAKO FERIA 2024

Abenduak 28. zapatua





◀ **URTARRILA:** 25 urte bete zituen Jo Ta Sua realzaleen peñak, eta horren harira hainbat ekintza prestatu zituzten urtean zehar egiteko. Besteak beste argazki erakusketa antolatu zuten, azken 25 urte hauen errepasoa egiteko. Jokalari ohiekin mahai-ingurua ere egin zuten azaroan.

▶ **URTARRILA:** Espainiako Auzitegi Konstituzionalak amaitutzat eman zuen *Bateragune auzia*. Espainiako Auzitegi Gorenak eskatutakoaren kontra, *Bateragune auziko* epaiketa berriro ez egitea proposatu zuen Juan Carlos Campo Auzitegi Konstituzionaleko magistratuak eta epaimahaiko 11 magistratuetatik zazpi auzia bukatzearen alde bozkatu zuten, epaiketa berriro egitea "neurritz kanpoko" litzatekeela arrazoituta. Hala bukatu zen hamabost urte lehenago Espainiako Auzitegi Nazionaleko Baltasar Garzonek hasitakoa.



◀ **OTSAILA:** 2023ko uztailean lau egunez Mendaron egin zuten garagardo azokaren antolatzaileek 7.695 euroko laguntza eman zioten Biodonostia Institutuari. Maria Muñoz Caffarel eta Amaia Zipitria ikertzaileek zuzentzen zuten proiekturako izan zen dirua, bularreko minbizi metastasikoaren kontrako immunoterapia berri bat ikertzeko.

● **08:30 - 14:30** Erakusketa eta salmenta: baserriko fruta, barazkiak, animaliak eta tresneria. Kalegoen plazan, elizpean, Aita Agirre plazan, Giza Eskubideen parkean, eta Pedro Migel Urruzuno kalean.

● **09:00 - 20:00** Parrokiako Jaiotza.

● **10:00etatik aurrera,** Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

● **10:00 - 14:30** Elgoibarko artisauen azoka, Maalako parkean.

● **11:30** Elgoibar Ikastolaren txosna, Kalebarren plazan.

● **12:00** Urteko Gazta Txapelketa. Udaleko areto nagusian. Kalamua Elkartek antolatuta.

● **12:30** 'Plazara dantzara' erromeria. Lekueder parkean.

● **13:00** Bertsolariak udaletxeko areto nagusian.

● **13:30** Sari banaketa. Udaletxean.

● **19:00** Kittu taldearekin, kalejira. Kalegoen plazatik.



▲ **OTSAILA:** Mikel Arantzamendi (Ondarroa, 1961) Elgoibarko udaltzainburuak erretiroa hartu zuen. 28 urte egin zituen Elgoibarko Udaltzaingoan, eta azken ia bost urteetan bera izan zen udaltzainburua. Ibilbide horretan denetik bizi izan zuela aitortu zion BARRENI, gauza onak eta txarrak, baina oro har, Elgoibar bizitzeko herri lasaia zela nabarmendu zuen. Leticia Astrayk (Elgoibar, 1980) hartu zuen lekukoa.



▲ **OTSAILA:** Sortuz gero Interneteko jardunean egin genuen hirugarren aldaketa handia egin genuen webgunean. Gero eta irakurle gehiago (irakurleen %70) eskuko telefono bidez sartzen dira gure albisteetara eta horregatik egokitu genuen hein handi batean webgunea, telefonotik errazago nabigatzeko.



▲ **OTSAILA:** Emakume* Feministen Asanblada sortu zuten feminismoan aritzen diren emakumeen* artean. Norbanakoak, Haizea emakume taldekoak, Amatasun Feministak taldekoak, Narrutsikeoak, Lilakoak eta Ulukakoak daude taldean eta herriko emakumeak saretzeko asmoz batu ziren.



◀ **OTSAILA:** Iker Garcia eta Rafa Zulaikak hartu zuten Makina Erremintaren Museoaren ardura. Rafa Zulaika donostiarrak 30 urteko ibilbide luzea eginga du museoan esparruan: Bilboko Arte Ederretakoan, Euskal Itsas Museoan, San Telmon bai eta Baionako Euskal Museoan ere. Zulaikak Iker Garcia eibartarra du lagun zuzendaritzan, makina-erremintaren munduan hamabost urteko esperientzia pilatu duena.

► **MARTXOA:** 2025eko Kilometroak jaia Elgoibarren izango dela jakinarazi zuen Elgoibar Ikastolak. Datorren urtekoa Elgoibarren egiten den bigarren aldia izango da, 1996an ere Elgoibarrek hartu zuelako Gipuzkoako ikastolen aldeko jaia. Kilometroak jaiaren lekukoa urrian iritsi zen Elgoibarrera, Azkaraten behera. Eskutik eskura sartu zuten Ikastolako familiek lekukoa ikastetxe barrura, horretarako propio antolatutako harrera ekitaldian. Azaro amaieran aurkeztu zituzten Kilometroaken leloa, irudia eta helburuak. *Salto saltoka* lemapean, 2025eko urriaren 5ean egingo da jaia.




▲ **MARTXOA:** Arriaga auzoko ur-hondakinak Apraizko araztegira bideratu zituzten. 610.831,70 euroko aurrekontua izan zuten obrek eta sei hilabetean gauzatu zituzten. Arriaga industrialdeko hondakin-urena konponduta, Mendaroko eta Altzolako hondakin-uren gaia konpontzea falta da Debabarrenean.



▲ **MARTXOA:** Zubiko obrak hasi zituzten Mendaron. Uholdeentzat oztopo zela iritzita San Antonioko harrizko zubi zaharra eraistea erabaki zutenetik, Garagartza, Mendarozabal eta Herriko Enparantza 634 errepidearekin lotzeko dagoen bide bakarra da zubia. 1976an eraiki zuten.

QLED SAMSUN TQ55Q67DAUXXC TELEBISTA



- 4K UHD - Smart TV
- Quantum HDR 10+
- QLED 4K Lite prozesatzailea
- AirSlim diseinua - Motion Xcelerator
- 3 HDMI - 2 USB
- Pilarik Gabeko Agintea (Eguzki-energiarekin kargatzea)
- QLED teknologia

599 €


DELONGHI EC260.BK STILOSA KAFE-MAKINA

94,90 €




- 1.100 W Potentzia
- 15 BAR-eko presioa
- 2 katilurentzako tartea
- 1,1 litroko edukiera
- Tanten Aurkako sistema
- 2 termostato independente
- Kaputxino sistema aurreratua

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

Gabon zoriotsuak opa dizkizuegu!





Tchin Tchin

**2 BETAURREKO
GEHIAGO EURO BAT
GEHIAGO ORDAINDUTA***

**ETA HIRUGARREN BAT
ZURETZAT EDO OPARITZEKO**

* Iratxaldintzak optikan edo afflelou.es helbidean. Eskaintza honek 2024/12/31ek 2025/2/2ra arte balio du, Espainiako eta Andorrako Alain Afflelou optiketan.

**SAN BARTOLOME KALEA, 10
ELGOIBAR · 943 74 37 34**

ALAINAFFLELOU

Eskatu hemen
hitzordua
afflelou.es





▲ **APIRILA:** Munduko Poesia Kaierak bildumako 50. zenbakian Giorgos Seferis poeta greziarraren antologia kaleratu zuen Susa argitaletxeak, eta Maite Lopez las Heras idazleak euskaratu zituen Seferisen poemak.



▲ **APIRILA:** *A flor de piel* poesia liburua argitaratu zuen Telmo Fernandez-Campinun Etxabek (Elgoibar, 1999), bere bigarrena. Beste norabait bizitzera doan gazte baten bizipenak bildu zituen poemetan Fernandezek, eta idaztean sentitu zuena sentiarazi nahi dio orain irakurleari.



◀ **APIRILA:** Juan Jose Araolaza Lahidalga euskaltzale eta kulturgilea hil zen apirilaren 11n, 80 urterekin. Zizurkildarra zen sortzez, baina 11 urte zituela etorri zen Elgoibarrera bizitzera, aitaren lanagatik. Elgoibarren bera izan zen, besteak beste, Aubixa aterpetxearen eragilea. 1970. urtearen bueltan bururatu zitzaion ideia, eta 1973an hasi ziren Ikastolako umeak Aubixara joaten. Arantxa Arrieta elgoibartarrarekin ezkondu zen Araolaza eta Elgoibartik Eibarrera aldatu ziren gero. Han ere ahalegindu zen Eibar euskalduntzen. 1992an, Eibarren euskara gutxi entzuten zela-eta, euskara elkartea sortzea erabaki zuen euskaltzale talde batek, eta bera izendatu zuten ...Eta Kitto! euskara elkarteko lehenengo presidente.

MEKANOSA
Errosario, 27-Elgoibar
943 740 284

- ✓ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ✓ MULTIKOPISTAK
- ✓ FOTOKOPIAGAILUAK
- ✓ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ✓ MARRAZKETA MATERIALA
- ✓ INFORMATIKA
- ✓ FAXA

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 986 162

LAGUNAK
solchoneria textil hogar

2025an zoriona, osasuna eta alaitasuna izan daitezela nagusi!
GABON ZORIONTSUAK!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



◀**APIRILA:** Kilimon Trail lasterketaren hamabigarren edizioa jokatu zuten Mendaron, bero sapa handiarekin eta ibilbidearen azkeneko zatia aldatuta. Lasterketa luzean, Gontzal Murgoitio elorrioarra izan zen azkarrena gizonetakoan (2:05:33) eta Ainara Urrutia aretxabaletarra, emakumeetakoan (2:42:01). Motzean, berriz, Imanol Inza zumarragarra (0:56:37) eta Lola Oiartzabal gasteiztarra (1:08:39) gailendu ziren. Maite Maiora mendarorak bigarren egun zuen lasterketa luzean.



▲**APIRILA:** Danobat kooperatibak 70 urte bete zituen eta ospatzeko aste osoko egitaraua antolatu zuen.

Jon Aranoa
Guillermo Torres

Elgoibar
Albaitaritza

San Rikoa, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostengorako: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larunbatak: 11:00 - 13:00

leopaindegia zerbitzua daukagu.
Deitu ordua hartzeko.

FONTANERÍA
Ibámar
ITURGINTZA

GABON ZORIONTSUAK ETA URTE BERRI ON!

FLOREN / IBAI: 647 463 436
ibamariturgintza@gmail.com

Elgoibar, Gipuzkoa
20870

ESARRI AUTOAK
MULTIMARCA

SERVICIO
HYUNDAI
MAZDA


943 741 480
606 975 730
Aitor

Olaso, 17
20870 - Elgoibar

esarriauto@gmail.com

BM
bronymec

Termoplastiko eta konpositeetan adituak



▲APIRILA: EAJk irabazi zituen Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak Elgoibarren, baina inoizko alderik txikiena atera zion EH Bilduri: 13 boto. Jeltzaleek 2.162 boto eskuratu zituzten eta EH Bilduk, berriz, 2.149. Mendaron estreinakoz irabazi zituen EH Bilduk Eusko Legebiltzarreko hauteskundeak. 392 boto eskuratu zituzten eta EAJk 343.

►APIRILA: Fibrosi kistikoa duten gaixoei eta haien familiei laguntzeko *Bixi* proiektua jarri zuen martxan Seber Uribe Aranburu ondarrutarrak, Olaizaga kiroldegiko igeriketa irakasleak. Uztailaren 26tik abuztuaren 7ra Brusela eta Ondarroa arteko bidea osatu zuten bizikletaz, gaixoek eta haien etxekoek administrazioaren eta osasun-sistemaren aldetik jasaten duten arreta eta baliabide falta ikustarazteko, eta paraleloan, dirua biltzeko.



2024 ARREITURRE INSTITUTUA
Eguberri on!



Abenduak 24
da Gabon eguna
eta gauean dago
dantzatzen laguna.
Familia gaur dator
a zer poztasuna
opari ederrena
zaindu daukazuna.

Bertsoaren egileak: Gloria Ebowe, Beñat Muñoz eta Noa Castrillejo (DBH 1B)
Marrazkiaren egilea: Elena Amaro (Batz 2E)
Dolua: Astoa ikusi nuen



◀APIRILA: Eusebio Mugertza *Txirristaka*
Mendarok eman duen bertsolari handiena oroitzeko kultur programa aurkeztu zuten Mendaron In Leike kultur elkarteak, herritar talde batek eta Mendaroko Udalak elkarlanean. Abenduan 150 urte beteko zituen Txirristakak, eta urte osoan izan dituzte ekintzak Mendaron, azkena bere jaiotegunean. Tartean, baina, Txirristaka bertso-paper lehiaketa berreskuratu dute eta haurrentzako *Txirristaka* liburua argitaratu ere bai.



▲ **MAIATZA:** Agustin Lazarobaster hil zen maiatzaren 5ean, 82 urte zituela. Mendaroko herrigintzari eta kulturgintzari lotutako gizona izan zen azkenera arte, eta bereziki, dantza taldearekin harreman berezia izan zuen. Dantza taldeko txistularietako bat izan zen, odol emaleen taldearen sortzaileetako bat eta Mendaroko herria sortzeko lantaldean ere hartu zuen parte.



▲ **MAIATZA:** Amatau Mobila taldea aurkeztu zuten Elgoibarren. Kezkak batutako taldea da eta Altxa Burua mugimenduaren babesean, gaztetxoei sakeleko telefonoa emateko adina atzeratzeko lanean dihardute, Udalarekin elkarlanean.



▲ **MAIATZA:** Jon Lizarralde eta Arantza Aginakoren erraldioen miniaturak aurkeztu zituzten. Biak irakasle izan dira Inazio Bereziartua dantza eskolan, eta urteetako lanaren aitortza jaso zuten ikasturte amaierako aurreko bakarlariei emanaldian. Euskal Dantzako ikasleen kurtso amaierako jaialdian ere omenaldia egin zion Musika Eskolak Lizarralderi.



▲ **MAIATZA:** Euskal Herriko Itzulia Women txapelketako lehen etapa Elgoibarren amaitu zen. Jai handia antolatu zuen Udalak ekitaldi horren bueltan, eta galaz jantzi zen herria.



◀ **MAIATZA:** Txitxibilaldiak emakumeen mendi taldea omendu zuten Morkaikoren Egunean. Urteetan emakumeen eskubideen alde egindako lana aitortu zion Udalak, mendizaleen festa handiaren egunean. Une honetan penintsulako tontor altuenak igotzeko erronkan murgilduta dago taldea.

idama

GABON
ZORIONTSUAK!

Idama Ileapaindegia
 idama_ileapaindegia
615701812
943744026
Elgoibar / Gipuzkoa, (Berrera Santa Ana kaleak)

ASESORIA

GOAR

KONTABILITATEA

AHOLKULARITZA FISKALA

ASESORIA LABORALA

San Bartolome, 2 beheka - Elgoibar

Tel: 943 742 674 / 943 740 234

asesoria@asesoriagoar.com

Faxa: 943 742 129



▲ MAIATZA: Danobateko AEBetako Delta Wheel Truing Solutions enpresa erosi zuen. Trenbideko gurpilak birprofilatzeko ekipoak diseinatzeko eta fabrikatzeko duen esperientzia nabarmendu zuen Oskar Uriak, Danobateko Trenbideen negozio unitateko zuzendariak.



▲ **MAIATZA:** Angel Ibarluzeak seigarren aldiz irabazi zuen Gipuzkoako Bola Jokoko txapelketa.



MAIATZA: Belen
Azpeitia korrikalaria
omendu zuten, eta
Mamo Woldek Mintxetan
duen irudiaren ondoan
jarri zuten berea ere.
Mugertza krosa sei
alditan irabazi zuen
eta aitzindaria izan
zen emakumezkoen
atletismoan. Kirola eta
Berdintasuna sustatzeko
helburuen barruan sartu
zuen Udalak ekitaldia.



JAI ZORIONTSUAK ETA URTE BERRION



Softlan

Albitxuri Industrialdea, 3i

943 748 105

info@softlan.biz - www.softlan.eus

**Gestio programak, produkzio kudeaketa,
CRM, Business Intelligence eta
ordutegien kontrolerako
programetan gaude espezializatuak.**

Deitu eta hitz egingo dugu!

Gabon zoriontsuak!



◀ **EKAINA:** Herriko Antzokiko langileek greba eten zuten, baina Udalari eskatu zioten enpresari hitzarmena betearazteko. Apirilaren 11tik zeuden greban.

▶ **EKAINA:** June Loidik eskubaloiko liga txapelketa nagusia irabazi zuen Bera Bera taldearekin. Denboraldi berean Kopa eta Superkopa txapelketak ere irabazi zituen taldeak. Elgoibartarraren azken denboraldia izan da taldean, eta aurreko Xixongo La Calzada taldean dihardu.




▲ **EKAINA:** Iker Beristainek eta Ainhoa Lendinezek irabazi zuten Kimetz elkarteak antolatzen duen Nahaste Borraste proba herrikoia. 39 lagunek hartu zuten parte, aurreko urtean baino hiru gutxiagok.




▲ **EKAINA:** Sabino Txurruka pilotari elgoibartarra omendu zuten Debarroko Txapelketako finalean, bera izan zelako txapelketa hau gehienetan irabazi zuen pilotaria; 11 aldiz hain zuten ere.



▲ **EKAINA:** Ultra distantzietako Euskal Herriko Txapelketa irabazi zuen Mayi Mujikak, eta probako errekorra ondu zuen gainera 7:40:08ko denborarekin.



▲ **EKAINA:** EH Bilduk irabazi zituen Europako Parlamenturako Hauteskundeak Elgoibarren eta Mendaron. 1.500 boto eskuratu zituen Elgoibarren eta EAJk 1.284. Mendaron, berriz, 263 boto lortu zituen Bilduk eta EAJk 204.



▲ **EKAINA:** Benantzio Otaegi 29 urtez Elgoibarko parrokoa izandakoa hil zen ekainaren 11n. Soraluzeko parrokiatik etorri zen Elgoibarrera 1993an, eta 2022ko urtarrean laga zuen Elgoibarko San Bartolome parrokia.



▼ **EKAINA:** Elgoibartik mundura egitasmoaren barruan sortutako webguneak aurkeztu zituzten. Herriko ikastetxeetako ikasleek herriko eragile eta elkarteentzako sortutako webguneak ikusgai jarri zituzten. PuntuEus fundazioak Elgoibarko Izarrak eta Udalak sustatutako proiektua da.

▼ **EKAINA:** San Migeleko rallysprinta berreskuratu zuten. 2016tik egin gabe zegoen proba, eta aurrean gainera, pilotu emakumezkoek antolatu zuten. Inoiz baino emakume gehiagok hartu zuten parte aurtengo proban, eta Aitzol Apalantzak eta Olatz San Miguelek irabazi zuten.



lizardi

INGENIERÍA
DISEÑO
CONTROL

Zorionak eta Urte berri on!

Olaso industriagunea - Olaso kalea, 15-L.67 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 741 312 - www.lizardi.net



▲UZTAILA: Sergio Gonzalez *Kukik*
C.D. Elgoibar laga zuen, 45 urte klubari
lotuta eman ostean. 14 urterekin sartu
zen klubean eta erretiroa hartu arte bera
izan da material arduraduna. Lagunek eta
klubeko kideek egin zioten agurra.



▲UZTAILA: Taupadak Gomi eta Nolaren ezkontza bitxia antzeztu zuen. Udaletxean ezkondu ziren, eta gero Kultur Kafean egin zuten ospakizuna gonbidatuekin. Abenduan *Ilargia eta desioaren artean* estreinatu zuten.



▲UZTAILA: Parroko berria izendatu zuten Elgoibarrerako: Joseba Gonzalez. 55 urteko azkoitiarra da, eta azken urteak Pasai San Pedron egin ditu parroko lanetan. Aurretik Gipuzkoako bikario nagusi izandakoa da.






Mikel
INMOBILIARIA

Mikel Leon
inmomikel@gmail.com
747 459 343
 San Ignazio kalea 1,
 20870 Elgoibar
 [@mikel_inmobiliaria](https://www.instagram.com/mikel_inmobiliaria)

KAPRITXURA EGINDAKO TXOKOA, SANTA KLARA KALEAN. 59.000€



◀ **IRAILA:** Haizea Emakume Taldeak jaso zuen Lila Saria. 40 urteko ibilbidean emakumeen eskubideen alde egindako lanaren aitortza jaso zuen. Elkartek jarduera asko egin ditu emakumeen ahalduntzean, eta gaur egun ere eusten dio oraindik zeregin horri.



▲ **URRIA:** Sanlok 25 urte egin ditu. Urte osoan zehar hainbat ekintza antolatu ditu klubak eta Sanlabeer azokarekin eman zioten amaiera urteurrenari. Aurten 12 talde ditu klubak, bost gizonezkoenak eta zazpi emakumezkoenak. Babesleei eskerrak emateko baliatu zuten azoka.



▲ URRIA: Sokamuturra egin zuten estreinakoz urrian. Ezpata dantza eta sokamuturra izan dira aurtien Errosario kaleko jaien osagai nagusiak. Saka ganadutegiko zezenek girotu zuten Errosarioko Amaren Eguna.

HAIR'S

Ileapaindegia



*Gabon
zoriontsuak
guztiori!*

Astearteetan jubilatuen eguna


Orraztu	Moztu
14,50€	14,50€

Garbitu, moztu
eta orraztu

28€

San Bartolome, 6 behe

943 531 279



▲ **URRIA:** King Kong zubia hamaika hilabeterako itxi zuten, obraren bigarren fasea hastearekin batera. Ikaroren figura hegan eraman zuten, baina Udaletik jakinarazi zuten zubi berrian ere egongo dela Ikaro.



▲ **URRIA:** Hezur museoak 20 urte bete ditu aurten, eta lagunez inguratuta ospatu zuten urteurrena urrian. Jose Julian Marquizek orain dela 20 urte ekin zion historiaurreko erreplikak egiteari, eta hori guztia Hezur Museoa jasota dauka. Bere ametsa bete izana ospatu zuen lagun eta adituekin.



▲ **URRIA:** Elgoibarko LGTBI+ pertsonen bizipenen bilketa izeneko liburua aurkeztu zuten Udaleko Berdintasun Sailak eta Hiruki Larroxa kooperatibak. Modu anonimoan jaso zituzten testigantza horiek.



▲ **URRIA:** Oinarrizko txirrindularitza babesteko manifestazioa egin zuten Donostian, eta Elgoibarko Lagun Taldeko eta MTEko kideek ere hartu zuten parte protesta ekitaldian.



◀ **URRIA:** Disko berria aurkeztu zuen Alguillo & Alkimistak taldeak Aita Agirren: *Burua makurtu gabe*. Alfonso Guillo musikari elgoibartarraren proiektua da. Musikagintzako lagunekin bildu da horretarako, eta tartean, Silvia Hernandez elgoibartarrak ere hartu du parte, koroak eginez. Kulturunea beti egin zen.

► **URRIA:** Aritz Esnaolak eta Maite Urteagak irabazi zuten Lagun Taldeak antolatutako Idotorbeko Igoera. 40 lagunek hartu zuten parte, eta bakarra izan zen emakumezkoa. Esnaola 19 urteko txirrindulari mendaroarrak 14:05 denboran osatu zuen igoera, eta Maite Urteagak errekorra ezarri zuen emakumezkoetan, 16:25 denborarekin.



URRIA: *Hetero* narrazio liburua kaleratu zuen Uxue Alberdik urrian, Susa argitaletxearekin. Zortzi istorio askotariko eta hurbileko bildu zituen elgoibartarrak bere hirugarren narrazio liburuan. Alberdik zehaztu zuen ez dela ideia baten edo gai baten bueltan idatzitako bilduma bat, barruak eskatu ahala sortutako ipuinak zirela, eta ordena heteropatriarkalaren barruan mugitzen zirela zortzi ipuinak eta ipuinetako pertsonaiak. Durangoko Azokako nobedadeetako bat izan da *Hetero*, eta abenduan Pitxintxun aurkeztu zuen.

ABENDUAK 24
OLENTERO ETA MARI DOMINGIREN ETORRERA



11:00 MAALAN

Olentzerori eta Mari Domingiri agurra dantzatuko diete Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako umeei.

II:15 MAALATIK KALEGOEN PLAZARA KALEJIRA

**Kultur Etxearen aurrean Zazpi Jauzi,
Esku-dantza eta Pxit dantzatuko ditugu.**

11:00 ETATIK AURRERA KALEGOEN PLAZAN

Tonbola taloak...

Kalejira bukatutakoan Olentzero eta Mari Domingirekin egoteko aukera egongo da.



▲ **URRIA:** Txoteko Ezpata taldeak *Ilunpean jai duzu* diskoa kaleratu zuen, eta Kultur Etxeko sotoan eman zuen kontzertua. Hamabi kantu bildu dituzte diskoan, denak euskarazkoak.



▲ **URRIA:** Judash taldeak bere estreinako diskoa kaleratu zuen. 2017an sortu zuten taldea Rodisa enpresako lau lagunek, beraien lankide Iker Amutxastegiren omenez. Hodei Otegi da taldeko musikarietako bat.



▲ **URRIA:** Nerea Arrutik irabazi zuen Euskal Herriko Aizkolari Txapelketa. Elgoibarren jokatu zuten finala bigarren urtez jarraian, eta 2023an bezala, Arrutik jantzi zuen txapela.



▲ **URRIA:** Jone Arriolaren *Dena asmatuta dago* filmak irabazi zuen Lekeitioko Euskal Zine Bilerako sari nagusia. Hogei lan lehiatu ziren, eta zinegile elgoibartarrak jaso zuen Urrezko Antzara eta 3.000 euroko sari nagusia.



▲ **AZAROA:** Galiziako baserri auzoetako medikuak omentzeko eskultura egin zuen Arturo Andradek, eta Lazako (Ourense) plazan jarri zuten. Markinako marmol beltzarekin egindako obra da.



▲**AZAROA:** Guillermo Ramos eta Maria Ordoñez nagusitu ziren Karakateko Igoeran. Kilometro Bertikaletako Espainiako txapelduna da Ramos, eta 27:17 denborarekin irabazi zuen proba. Maria Ordoñezek 34:57ko denborarekin lortu zuen garaipena.



AZAROA: Indarkeria Matxistaren Kontrako aldarria lehen lerrora eramateko eskatu zuten mugimendu feministak deituta Elgoibarren eta Mendaron egin zituzten mobilizazioetan. Gizonezkoei gai honetan ardurak hartzeko eskatu zieten, irtenbidea ez badira arazoa direla gogorarazita.



AZAROA: Etxegabetasunari
End plataforma arukeztu zuten
Eibarren, etxegabetasunaren
arazoa amaitzeko bokazioarekin
sortu zuten herri-plataforma.
Justizia sozialarekin eta
elkartasunarekin konprometitutako
askotariko lagunek sortu zuten
plataforma, etxegabe bakar
batek ere ez dezan kalean lo egin
beharrik izan. Udaberrian itxia
erabaki zuten Eibarko Neguko
Dispositiboaren siglek osatzen dute
END, horrek bultzatu zituelako
plataforma sortzera





▲ **AZAROA:** Altxa Burua Taldea sortu zuten Mendaron, pantailen gehiegizko erabilerarekin kezkatuta. Seme-alabei Internetarako sarbidea duen telefonoa emateko adina atzeratzea, eskolak telefono mugikorrik gabeko arnasgune bihurtzea eta helduak eta seme-alabak erabilera egokian trebatzea dituzte helburu.



▲ **AZAROA:** Realaren lehen taldearekin debuta egin zuen Luken Beitia Agirregomezkorta elgoibartarrak, Espainiako Errege Kopan Jove Español taldearen kontra jokatu zuten partidaren. Hasierako hamaikakoan sartu zuen Imanol Alguacil entrenatzaileak. Realak 0 eta 5eko emaitzarekin irabazi zuen.



◀ **AZAROA:** Alex Txikon alpinistak Himalaiara prestatu zuen espediziora batu zen Ainhoa Lendinez kazetari eta mendizale elgoibartarra. Annapurna mendia negu betean igotzeko erronkari heldu zion Txikonek, bigarrenengo. 2023an ez zuen lortu.



▲ **ABENDUA:** Makina-Erremintaren Museoaren 25. Urteurrena ospatu zuten, lagunez inguratuta. Museoko arduradun Rafa Zulaikak, Rafael Barrenetxea museoko presidenteak, Elgoibarko alkate Maialen Gurrutxagak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Mari Jose Telleriak, Jaurlaritzako Kultura eta Ondareko zuzendari Urkiri Salaberriak eta Xabier Ortueta AFMko zuzendariak hartu zuten hitza ekitaldian museoan egin zuten ekitaldian, eta Niala Magoak magia saioa egin zuen.



▲ **ABENDUA:** McKenzie Wark idazle eta ikertzailearen *Love and money, sex and death* liburua eta Alison Bechdelen *Fun home. A family tragicomic* liburuak euskaratu zituen Danele Sarriugartek (Elgoibar, 1989). Katakrakek argitaratu zuen lehenengoa, eta euskarara itzulitako Mckenzi Warken lehen lana izan zen. *Fun home*, berriz, Txalapartak argitaratu zuen.



▲ **ABENDUA:** Tokiko merkataritza sustatzeko, Bruna kanpaina sortu zuen Elgoibarko Udalak, herriko merkatarien laguntzarekin. Herriko hamasei erakusleiko interaktibo bihurtu zituzten eta haietan eskua jarrita jarraitu ahal izan dugu ipuina. Jasone Osorok sortu du ipuina, Judit Piellak ilustratu du eta Mario Etxebarriak bihurtu ditu magiko erakusleikoak. Garazi Ayesta kazetariaren ahotsen ari da narratzailea ipuinean, eta Gaztelekuko erabiltzaileek jarri diete ahotsa Brunari eta haren lagunei.



▲ **ABENDUA:** Elgoibarko hamaikakoa aurkeztu zuten Aita Agirre kulturgunean, 80 bat lagunuen aurrean. Maiatzaren 15etik 25era egingo da 2025ean hizkuntza ohituretan eragiteko Euskaraldia ariketa soziala.



◀ **ABENDUA:** Elgoibarko Izarrako presidente izandako Antonio Irigoien Mancisidor hil zen abenduaren 11n, 89 urte zituela. Kulturazalea eta euskaltzale amorratua zen Irigoien, eta Elgoibarko Izarrako presidente izan zen, 1980an. Alberto Agirreazaldegi hartu zion erreleboa elkartearen presidentetzan eta Andres Alberdiri eman, 1981ean, eta bere agintaldian sortu zuten Elgoibarren bertso-eskola, Angel Ugarteburu irakasle zela. Maketagile aritu zen urteetan Irigoien tailerrean, eta gero, Portugaleteko Euskara teknikari ere izan zen. Bilboko Udalean ere aritu zen lanean ondoren, baina beste zeregin batzuetan.



▲ **ABENDUA:** Sallobenteko berdegunea inauguratu zuten. Hezkuntza Mahaian garatutako proposamen zabalago baten barruan sortu zuten jolasgunea Garaion Natur Artea Elkartekoek, Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako bosgarren mailako ikasleen laguntzarekin. Atxutxiamaiak belaunaldien arteko harremanak sustatzeko espazioa sortu zuten jolasgune bererako.



▲ **ABENDUA:** Danobatgroup taldeak Eusko Jaurlaritzak emandako hiru Bikain ziurtagiri eskuratu zituen abenduaren 18an: taldeko zerbitzu zentralek, Danobat kooperatibak, eta taldeko partner teknologikoa den Ideko zentro teknologikoak urrezko hiru akreditazio jaso dituzte, aintzatespen-maila gorena. Soralue enpresak, berriz, zilarrezko ziurtagiriaren mailarik altuena eskuratu du. Danobatgroup taldekoen esanetan, lorpen horrek sendotu egiten du taldeak euskararekin duen konpromisoa, eta berretsi egiten du Euskadin duen lidergoa lan-ingurunean euskara sustatzeari dagokionez.



▲ **ABENDUA:** Elgoibarko anbulatorioko ordutegia zabaltzeko eskatuz jarraitzen du 24/7 Plataformak eta borroka horretan bainbat protesta ekintza eta bestelako egin dituzte aurten ere. Azkena, abenduaren 18an. Osakidetzaen gaur egungo egoerari buruzko hitzaldia antolatu zuten Duintasunarekin batera, *Zer gertatzen ari da Osakidetza?* izenburupean. Hitzaz jan izana egozten diote Osakidetzari, murrizketa pandemia garaiko egokitzapen bati zor zitzaiola esan zuelako.



▲ **ABENDUA:** Elgoibarko Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatu zituzten Herriko Antzokian. 23 sari banatu zituzten, 18 herriko elkarteek eta bost, Udal Kirol Patronatuak. Ohi lege, kirolaren inguruko solasaldi batekin osatu zuten ekitaldia. Aurten, Carlos Soria alpinista (Avila, Espainia, 1939) gonbidatu zuten. 85 urterekin, hamalau zortzimilakoak osatzeko falta zaizkion bi mendiak igotzeko ahaleginean dabilena. Dhaulagiri eta Shisma Pangma falta ditu igotzeko.

Martitzenean iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi, goizez Elgoibarrera, eta arratsaldean Mendarora



Martitzen goizean etorriko dira Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarrera, Elgoibarko Izarraren Atxutxiamaiak aisialdi taldekoen eskutik. 10:00etan, San Lazaro egoitzara eta eguneko zentrora joango dira Olentzero eta Mari Domingi eta kanturako izena eman duten lagunak, eta ondoren, 11:00etan, agurra dantzatuko diete Maalan Inazio Bereziartua dantza eta musika eskolako ikasleek eguneko bi protagonistei. Handik, kalejiran irtengo dira gero kalean gora. Kultur Etxe parera iritsitakoan geldialdia egingo dute dantzarako. *Zazpi jauzi, esku-dantza* eta *Pxit* dantzak dantzatuko dituzte han, eta Errosario kaletik Kalegoen plazaraino igoko dira gero. Ordurako, opariak banatzen hasita egongo dira han Elgoibarko Izarraren tonbolan, eta talo-postuan ere lanean ibiliko dira. Kalejira

amaitutakoan, Olentzero eta Mari Domingirekin egoteko aukera izango dute haurrek, San Bartolome parrokiako atarira gerturatuta.

Mendaron, Ameikutz musika eskolakoek antolatuko dute Olentzero eta Mari Domingiri egingo dioten ongietorri festa. Ohi legeez, Moxuaneko atariraino oinez iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi 17:00ak aldera, eta han, Antonio Iriondo *Kapainek* eta Agustin Lazarobaster *Torrek* eraikitako traktorera igo, eta herri osoan barrena ibiliko dira, mendaroarrak agurtzen. Antolatzaileek aurreratu dute 18:30ak alderako espero dituztela udaletxeko atarian. Harreran, Ameikutz musika eskolako musikarien, herriko dantzari gazteen eta Mendaroko bertso eskolako ikasleen artean ondutako harrera egingo diete, eta ondoren udaletxeko balkoira igoko dira, herritarrak agurtzera.

Txirristaka herriko bertsolariaren bertso-sortak kantatu zituzten Unai eta Eñaut Agirre bertsolariek Mendaron, 'Auskalo zeinek jarriak' saioaren baitan

Eusebio Mugertza *Txirristaka* bertsolariaren jaiotzaren 150. urteurreneko kultur programaren baitan, *Auskalo zeinek jarriak* bertso-bazkaria egin zuten domekan Mendaron, In Leike kultur elkarteak, herritar talde batek eta Udalak Aizpe gastronomia elkarteko laguntzarekin antolatuta.


55 lagun elkartu ziren bazkaritan, Unai eta Eñaut Agirre anaien *Auskalo zeinek jarriak* bertso-jarrien emanaldiaz gozatzeko. Bazkaltzeko tartean etenak egin zituzten, bertsolariek kantuan entzuteko, eta bazkalostean biribildu zuten saioa Agirretarrek. Pello Errota, Jose Manuel Lujanbio *Txirrita*, Indalezio Bizkarrondo *Bilintx*, Juan Kruz Beloki *Motza* eta beste hainbat bertsolarik sortutako bertso-sortekin batera, Eusebio Mugertza *Txirristakak* bere buruari jarritakoak



ere kantatu zituzten, tartean *Konfesio jenerala*, *Mila eta zortziehun* eta *Mendaro Txirristaka* izenburukoak.

Txirristakak bere buruari jarritako *Konfesio jenerala* bertso-sorta entzuteko: BARREN.EUS.

'Ilargia eta desioaren artean' antzezlanaren estreinatuko du gaur Taupadak



Taupada antzetzaldekoek beren azken lana taularatuko dute gaur Herriko Antzokian, 20:30ean: *Ilargia eta desioaren artean*. Eburne Lasak zuzendu du obra eta hamar lagunek lantaldeak jardungo du gaur lanean beraz gain: bederatzi aktorek eta teknikari lanak egingo dituen Joxe Mari Larrañagak. Maitasunak, edozein muga gainditzen dituela erakusteko obra dela aurreratu zuen joan zen astean Eburne Lasak, eta ikuslea harritzeko eta liluratzeko gogoz oholtzaratuko direla. Sarrerak salgai daude www.herrikoantzokia.eus webgunean, eta lehiatilan bertan ere eskuratu ahal izango dira gaur.

Oraindik gelditzen dira sarrerak Elgoibarko Izarraren bertso-jaialdirako

Eguenerako, abenduaren 26rako, antolatu du bertso-jaialdia Elgoibarko Izarrak, Udalarekin lankidetzan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin, eta antolatzaileek jakinarazi dutenez oraindik gelditzen dira sarrera batzuk.

Maialen Lujanbio, Julio Soto, Oihana Iguaran, Agin Laburu eta Xabat Illarregi arituko dira kantuan eta Imanol Artola *Felix-ek* egingo ditu gai-jartzaile lanak. Bertso saioa Herriko Antzokian izango da, 20:00etan hasita.


Beti Sua eta Mauxitxa txarangak kalera irtengo dira Eguberrietan

Abenduaren 23an, Gabon egun bezperan, irtengo dira kalera Beti Sua txarangakoak, iluntzez. Santa Ana kalean hasi dute kalejira, 18:00etan, eta 19:00ak bitartean kalez kale

ibiliko dira. Mauxitxa txarangakoek, berriz, abenduaren 27ko iluntzea girotzeko ardura izango dute. 18:00etan hasiko dute kalejira eta 19:00ak aldera arte ibiliko dira kaleak musikaz girotzen.

Mendaroko bertso-eskola, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean

Duela 50 urte sortu zuten Almen ikastetxeko bertso-eskola, Gipuzkoako lehena, Eskoriatza eta Aretxabaleta artean, eta zapatuan jokatu zuten Gipuzkoako Bertsolari Txapelketak urtemuga hori baliatu nahi izan zuen bertso-eskola hari omenaldia egiteko. Hala, Arantzazu Loidi lehen haurren bertso-eskola hartako kideak jantzi zion txapela Alaia Martini, eta Patxi Goikoleak eman zion 25 urtez azpiko bertsolari onenaren saria Aner Peritz. Baina, bertso-eskola gehiagotako ordezkariak ere parte hartu zuten sari banaketan, tartean Irune Basagoiti Mendaroko bertso-eskolako irakasleak. Basagoitik Andoni Rekondo zazpigarren sailkatuari eman zion saria.



Euskaltzaleon Topaguneak izen eta izan berri bat hartu du: Taupa Euskaltzaleen Mugimendua

Euskaltzaleen Topaguneak hasiera berri bat irudikatu zuen zapatu goizean Bilboko Kafe Antzokian: aurrerantzean *Taupa*, euskaltzaleen mugimendua izango da, eta Euskal Herri osoko euskaltzaleak saretuko ditu. Eraldaketa sozial sakon bat eragin nahi dutela adierazi zuen Jasone Mendizabal Taupako koordinatzaile orokorrak, "euskarak eta herri honek jauzi bat behar dutelako", eta jauzia eragiteko, gauden tokitik mugitu beharra dagoelako: "Badakizue aldaketa norberarengandik hasten dela; horregatik ausartu gara garena eta egiten duguna ezbaian jartzera, eta aurrerantzean izan eta egin nahi duguna berrasmatzera".

Euskal Herri osoko euskaltzalez osatutako mugimendu zabal bat irudikatu zuten Bilbon, euskara elkartearen bazkideetatik hasi, eta harago iristeko gai izango dena. Jon Zapata Taupako Aktibazio arduradunak azaldu zuen euskara elkarteak izan direla eta izango direla mugimenduaren muina, baina aurrerantzean, elkarteetan antolatuta egon gabe ere, euskararen alde ekarpena egin nahi duten herritarrek euskaltzaleen mugimendura batzeko aukera izango dutela, eta elkarterik



ez dagoen herri eta eskualdeetan bizi diren euskaltzaleek nazio mailako erreferentzia berri bat izango dutela: "Euskara elkartearen topagune izatetik euskaltzaleen mugimendu izatera igaro gara, eta herri batzuetan jardutetik Euskal Herri osoan antolatuzera". Orain arte saretu ez diren euskaltzaleei parte hartzeko aukera emateko *taupamugimendua*.eus webgune sortu dute eta han parte hartzeko modu ezberdinak eskaintzen zaizkie euskaltzaleei: informatzeko eta ahalduztzeko edukiak jasotzea, aktibatze proposamenak jaso eta egitea, eta mugimendua diruz babestea.

Aukeratu dute jaiotza lehiaketako irabazlea, parte hartu duten sei maketen artetik



June Alonso, Sara Leonardo, Julen Martin, June Castellanos, Sara Arrizabalaga eta Jon Leonardoren maketak irabazi du aurtengo jaiotza lehiaketa. Ohi moduan, era askotariko jaiotzak aurkeztu dituzte parte-hartzaileek, baina partaidetzan izan den beherakada nabarmendu behar da, sei talde bakarrik aurkeztu direlako lehiaketara. Elgoibarko Kabalgata Taldeak hartu zuen iaz lehiaketa antolatzeko ardura, Parrokiako Katekesia taldeari erreleboa emanda, eta etapa berriko estreinako lehiaketan, iaz, 19 talde aurkeztu ziren, aurten baino dezente gehiago.

80 postu baino gehiago jarriko dituzte aurten Elgoibarko Gabon Zahar azokan



Abenduaren 28an egingo da Elgoibarren Gabon Zahar azoka, eta aurten 80 salmenta postu baino gehiago izango direla aurreratu dute Elgoibarko Udaletik. 08:30ean zabalduko dute azoka, eta Kalegoen plaza eta inguruak ere hartuko ditu, Giza Eskubideen parkean, Aita Agirre plazan, Kalebarrenen eta Pedro Miguel Urruzuno kalean ere izango delako zer dastatu eta ikusia. Hasteko, 09:00etan zabalduko dute parrokiako jaiotza, parrokiako kaperan, eta 10:00etan kalejiran abiatuko dira Baltzola eta Lagunak taldeko trikitilariak. 10:00etatik 14:30era, berriz, Maalan izango dira ArTalde taldeko artisauek, euren produktuak saltzen, eta 11:30etatik aurrera, baina Kalebarren plazan, Eusko Labeldun saiheski pintxoak salduko dituzte Elgoibar ikastolakoek, Armueta, Patxi eta Ziarda herriko harategien jeneroarekin egindakoak.

Azokaren bueltan, baina, beste hainbat jarduera ere egingo dira, tartean lehiaketak eta ikuskizunak. Hala, 12:00etan, urteko gaztarik onena zein izan den aukeratuco dute. Kalamua Elkartek antolatzen du sariaketa. Ondoren, 12:30ean, Inazio Bereziartua Dantza eta Musika Eskolak antolatuta, Plazara Dantzara erromeria egingo dute Lekueder parkean, eta 13:00etan, udaletxean, osoko bilkuren aretoan, bertso-saioa egingo dute bertsolariek, barazki, fruta

eta gazta lehiaketako sariak banatzeari ekin aurretik.

Arratsalde-iluntzean, 19:00etatik aurrera, Kittu taldekoak ibiliko dira kaleak girotzen. Kantuan eta dantzan, poteoak, bazkalosteak eta afalosteak girotzen abilak dira Kittukoak eta kalez kale ibiliko dira abenduaren 28an, kantu zaharrak eta gaur egungoak joz.

Hamahiru ekoizle lehiatuko dira Gabon Zahar azokako fruta eta barazkien lehiaketan

Nekazaritza ustiatetik txartela duten ekoizleek parte hartu dezakete lehiaketan, eta Udalak 1.700 euro banatuko ditu guztira saritan: Barazkien eta fruten kategoriako posturik onenak 600 euro jasoko ditu; Benekotasunaren eta Berrikuntzaren saria eskuratzen duenak beste horrenbesteko saria jasoko du, eta epaimahaiaren ustez, mendiak ondoen zainduta dituen baserritarrak, berriz, 500 euro eskuratuko ditu.

Udaletik jakinarazi dute lehiaketan parte hartzeko baldintza betetzen duten ekoizleek 150na euro jasoko dutela parte hartzeagatik eta "kalitate eta barietateagatik" nabarmentzen diren bederatzi erakusmahaiak beste 250na euro jasoko dutela. Baserritarrak 06:00etan hasi ahalko dira beren erakusmahaiak gertatzen eta 09:00etan hasiko dira epaimahaiakideak mahairik mahai pasatzen.

200 lagun inguruk parte hartuko dute abenduaren 26an Birakak egingo duen dantza emanaldian

Gabonetan kaleak girotzeko, dantza emanaldi berezia iragarri dute Birakakoek hilaren 26rako. Josu Mujika zuzendariak aurreratu du 200 lagun inguruk parte hartuko dutela kalejiran. Santa Ana kaletik abiatuko dira Birakako nagusienak, 80 bat lagun guztira, eta kalejiran joango dira Maalara arte. Han zain izango dituzte txikiak eta elkarrekin kalean gorako bidea hartuko dute. San Frantzisko iturri parera iritsitakoan geldialdi bat egingo dute dantzarako, eta Errosario kaletik Kalegoen plazaraino igoko dira gero, han dantza saio berezi batekin amaitzeko. Gabonak izango dute dantzarako gaia eta 50 minutu inguruko kalejira izango da.



Azkoitiko historiari buruzko liburua aurkeztu du Javier Elorza Maiztegi historialariak



Azkoitia eta bere sustraiak. Iraurgiko San Martin eta Miranda. Herriaren sorrera eta bilakera 1324-1550 izenburuko liburua aurkeztu zuen martitzenean Azkoitian Javier Elorzak, elgoibartutako historialari soraluzearrak. Geografia eta Historian lizentziatua da Elorza; paleografoa eta Erdi Aroko ikerketa lanetan espezialdua, eta hainbat lan ditu argitara emanda, azkenekoa Juan Sebastian Elkanori eskainitako *Juan Sebastian Elkano: ingurua, ibilbidea, epika* izeneko liburua (🐼 Azkoitia GUKA).

Urtarrilaren 5ean iritsiko dira errege magoak Elgoibarrera eta Mendarora, arratsaldez



Ohi legez, urtarrilaren 5ean iritsiko dira ekialdeko errege magoak gurera. Santa Klara auzotik iritsiko dira Elgoibarrera, 18:00etan, eta kalegoen plazan egingo diete harrera herritarrek. Ondoren, herriko kaleetan barrena ibiliko dira, eta udaletxe azpira bueltatuta, gutunak jasoko dituzte gero. Mendarora ere 18:00etan hasiko dute errege desfilea, Presapen, eta Kilimon etorbidetik barrena Trinitatera joango dira, han umeen gutunak jasotzeko.

KIROLARI AITORTZA

✍️ Ainhoa Andonegi / 📷 Asier Orbea

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak eta herriko kirol taldeek Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatzeko ekitaldia egin zuten eguaztenean Herriko Antzokian. Carlos Soria (Avila, Espainia, 1939) alpinista ezagunak bere kirol ibilbideari buruz eman zuen hitzaldiarekin hasi zen ekitaldia. 85 urte ditu Soriak, eta urte horietan zehar izan duen kirol ibilbideaz mintzatu zen. Segidan, kirol sariak banatu zituzten. Klubek beraiek eman zituzten 18 sari, eta Kirol Patronatuak beste bost sari eman zituen. Guztira, 23 lagunek jaso zuten saria.



2024ko sarituak eta sari emaileak.



Bere bizitzaren eta goi mendietan eginiko ibileren errepasoak egin zuen Carlos Soriak, 85 urteko alpinistak.



Urko Mendazona
(Egokran Judo Kirol Kluba)



Jose Luis Diez Revenga
(Morkaiko Mendizale Elkarteak)



Pili Pedrosa
(Sanlo Eskubaloia Taldea)



Ane Agirregomezkorta (Mintxeta Atletismo Taldea)



Julen de Blas Gil (Lagun Taldea Txirrindulari Elkartea)



Seber Uribe (Elgoibarko igeriketa taldea)



Pedro Martinez del Rio (La Union ehiza elkarte)



Andoni García-Abad (Berkoa) (Zubi Ondo xake elkarte)



Andre Nunes (Urbizi urpeko jardueren elkarte)



Gorka Iriondo Salegi (Urñobitza Kirol Kluba)



Urko Vitores (Gigorraki, gorren areto futbola)



Haizea Alonso (Eskubaloia, Udal Kirol Patronatua)



Luken Lago (Errugbia, Udal Kirol Patronatua)



Iñaki Gorostiza (C.D. Elgoibar)



Danel Zubizarreta (Saskibaloia taldea)



Alaitz Merino San Millan (40-15 tennis elkarte)



Asier Gurrutxaga (Lagunak Pilota Eskola)



Alfonso Sainz (Olaizaga Kirol Taldea)



Jose Manuel Fisico Benavides (Zarta Kluba)



Agustin Irusta (Hiru Txirilo Bola Elkartea)



Paula Pelaz (Mendia, Udal Kirol Patronatua)



Ibon Baskaran (Snowboard, Udal Kirol Patronatua)



Danel Garaizabal (Txirrindularitza, Udal Kirol Patronatua)



ZORIONAK

URTE BERRI ON

Meka
Lanbide Eskola

Osasun gida.....



RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192



RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053



RPS 271/12
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 15
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22
Eibar
677 551 850



Jo Ta Sua peñakoek antolatutako marrazki lehiaketak baditu irabazleak

25. urteurrena ospatzeko ekitaldien barruan marrazki lehiaketa antolatu dute Jo Ta Sua realzale taldekoek. Elgoibar Ikastolako eta Herri Eskolako 6 eta 12 urte bitarteko umeek hartu dute parte lehiaketan eta Realaren eraman behar zuten marrazkietara. "Zer da zuretzat Real?, Nola bizi dituzu Anoetako partidak?, Zer iruditzen zaizu Txurdin maskota?, Zein da zure jokalaria gogokoena? moduko galderei euren sormenarekin erantzuteko eskatu genien herriko neska-mutilei eta lan bikaina egin dute", azaldu dute peñatik. Joan den barikuan banatu zituzten sariak Kultur Kafean egin zuten ekitaldian. Lau lagun saritu zituzten, adinka banatuta. A kategorian (2016, 2017 eta 2018an jaiotakoak) Unai Cebrianek jaso zuen lehen saria, June Salegik bigarren saria eta Danel Iglesiasek hirugarrengoa. B kategorian (2013tik 2015era bitartean jaiotakoak), berriz, Oihane Meabebasterretxeak aurkeztutako marrazkiak jaso zuen lehen saria, Noa Castañedak lortu zuen bigarren saria eta Lara Gurrutxagarentzat izan zen hirugarren saria.



Gabarrari abionetatik ateratako argazkiekin egutegia osatu du Manu Sanchezek

Espainiako Errege Kopa irabazita, Athleticen gabarra historikoa atera zuen apirilaren 11n Bilboko itsasadarrera azkenekotik 40 urtera. Areetako kaitik irten eta Bilboko udaletxera arteko bidea egin zuten gabarran Athleticen jokalaria, entretzaile eta gainerako teknikariek, eta egun horretan Bilbon sortu zen giroa eta pilatu zen jendetza erretratatu zuen Manu Sanchez elgoibartarrak, abioneta batetik Bilboko zeruan. 8.500 argazkitik gora atera zituen, eta orain, egun hartako hamabi argazki aukeratu eta egutegia osatu du. Elgoibarren, Kaia tabernan eta Pitxintxu opari dendan dago



salgai, 10 euroan. Guztira 1.500 ale kaleratu ditu (Informazio gehiago: amilquientospies@gmail.com).

Santurtziko xakelarien erakustaldia Elgoibarren jokaturako txapelketetan

Xake azkarreko bi txapelketa antolatu zituen Zubi Ondo Xake taldeak joan zen domekan, eta xakelari ugari batu ziren taldearen egoitzan jokatu zituzten lehietak. Tomas Conderen oroimenezko Createch Medical taldekako txapelketa jokatu zuten goizean eta Santurtzi Xake Taldea gailendu zen, 28 puntu batuta. Barakaldoko taldea izan zen txapeldunorde 26,5 punturekin eta Abadiñokoa sailkatu zen hirugarren, 25 punturekin. Bizkaia aldeko hiru taldeen ostean sailkatu zen etxeko taldea, Createch Medical, 24 puntu batuta. Hamabi talde aritu ziren lehian.

Taldekakoa jokatu zuten leku berean jokatu zuten banakako txapelketa, arratsaldean. 42 xakelarik hartu zuten parte, eta bederatzi errondako lehiaren ostean, Santurtzi taldeko kideak nabarmendu ziren berriro ere, lehen bi postuak eskuratuta. Denis Zubizarreta izan zen onena, 7,5 punturekin, eta bere taldekide Iker Santos sailkatu zen bigarren, 7 punturekin. Hirugarren postua Gros taldeko Alexander Larrañagarentzat izan zen. Lehen elgoibartarra Markel Kerexeta izan zen. Bost punturekin 16. postuan sailkatu zen. Bi txapelketetan erakutsi duten nagusitasunaren aurrean, Santurtzi Xake Taldekoek egiten duten lana goraipatu dute Zubi Ondo taldekoek. "Lan handia egiten duzue euskal xakearen alde, ikusi besterik ez dago zuen lanaren fruitua, alde handiaz irabazi duzue-eta Elgoibarren, bai taldeka eta baita bakarkako lehian ere". Hitz eta laudorioak eskertu dituzte santurtziarrek eta Elgoibarren etxean moduan sentitu zirela erantzun diete Zubi Ondokoei.

Eskola Kiroleko Xake txapelketa ere jokatu zuten joan zen asteburuan. 29 gaztetxo aritu ziren lehian eta Paul Mekolalde (LH5-LH6 adin tartean), Ian Muñoz (LH3-LH4 adin tartean) eta Imran Karzazi (LH1-LH2) izan ziren onenak.

Eguberrietan ere izango du lekua xakeak Elgoibarren, Emakumeen IV. Xake Txapelketa



Taldekako txapelketako irabazleak, Mikel Leonekin.



Bakarkako txapelketako podiuma.



Eskola Kiroleko Xake txapelketako jokalariek batzuk.

antolatu baitu Zubi Ondok abenduaren 22rako, domekarako. Aita Agirre Kulturguneko areto nagusian izango da, 11:00etatik aurrera.

Herri kirolen eguna ospatu dute Mendaroko eskola-umeek



Arno guraso elkartekoek antolatuta, Herri Kirolen Eguna ospatu zuten zapatuan, Mendaron. LH3tik LH6ra arteko ikasleak txinga eroaten, lokotx batzen eta sokatiran jardun ziren, besteak beste, kirolerako dohaia badutela erakutsiz.

Adinka banatu zituzten haurrak eta ordubete inguruko saioak egin zituzten maila bakoitzeko. Saio bakoitzaren bukaeran adin tarte horretako gurasoek ere parte hartu zuten, seme-alaben kontra lehiatuz. Argazki gehiago barren.eus-en.

Karate saio berezia, DANak eragindako kaltetuei laguntzeko

Valentzian eta inguruetan DANak kaltetutako tokietan berreskuratze lanetan laguntzeko makina bat ekimen sortu dira Euskal Herrian, eta Elgoibarko eta Soraluzeko karate taldeek ere jarri nahi izan dute euren alea, Udal Patronatuaren laguntzarekin. Karate saio solidarioa egin zuten aurreko barikuan.



Hodei Ezpeleta finaleko atarian gelditu da



Azken urteetan final ugari jokatzen eta irabazten ari den arren, Urrezko Aizkolari Kopako finalean ez dugu Hodei Ezpeleta ikusterik izango, ez baitu lortu finalerako sailkatzerik. Otxandion jokatu zuten finalaurrekoan Jokin Urretabizkaia *Basozabal* donostiarrak lortu zuen finalerako sailkatzea, 09:55eko denboran lanak bukatuta. Ezpeleta sailkatu zen bigarren (10:59), Eneko Otaño hirugarren (11:06) eta Ibai Soroa laugarren (12:21). Mikel Larrañagak, Julen Alberdik eta Basozabalek jokatuko dute finala, Asteasun, abenduaren 31n. Jaialdi berean jokatuko dute emakumezkoen binakako finala, eta hor izango da Uxue Ansorregi mendarorarra, Karmele Gisasolarekin bikotea osatuta.

San Silbestre lasterketak egingo dituzte Elgoibarren eta Mendaron

Urteari antxixika agur esateko aukera izango da aurten ere Mendaron zein Elgoibarren. Ordu berean jokatuko dituzte bi herrietako lasterketak abenduaren 31n, 17:00etan. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatzen du Mendarokoa. Goñati pilotaleku parean izango da irteera, eta 5,2 kilometroko distantzia osatu beharko dute korrikalariak. 12 urtez gorakoek parte hartu ahal izango dute, baina 12-14 urte bitartekoek heldu batek lagunduta egin beharko dute korrika. Parte hartzeko izena eman beharko da, frontoian bertan. Proba hasi baino orduerdi aurretik zabalduko dute horretarako tarteak. Bukaeran mokadua ere banatuko dute antolatzaileek, Mendaroko Udalaren laguntzarekin.

Elgoibarkoa CATT Morkaiko taldeak antolatzen duen bigarrenkoa izango da. Parte hartzaileek 5 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute. Nuala Elkarteko kideek irekiko dute lasterketa, neutralizatua izango den lehen itzulian. Antolatzaileek zehaztu dutenez, ez da kronometrajarik edo sailkapenik egongo. Hala ere, garaikurra jasoko dute gizonezko eta emakumezko azkarrenek. Probaren amaieran 'Korrikalariaren poltsa' ere banatuko dute, hainbat



produkturekin eta oroigarritzko jantzi batekin osatua. Era berean, parte-hartzaileen artean opariak ere zozkatuko dituzte, Txankakuaren eta herriko ostalarien laguntzari esker. Izen-emateak lasterketa egunean egin beharko dira, 15:30etik 16:45era bitartean, bost euro ordainduta. Lasterketan parte hartzeko gutxieneko adina 12 urtekoa den arren, 15 urtetik beherako gazteek heldu batekin parte hartu beharko dute.

Errege bezperan jokatu dute Mugertza krosa

Egun berezia izango da urtarrilaren 5a Elgoibarren. Kroseko erregeak lehiatuko dira goizean Mintxetako zirkuituan eta errege magoak etorriko dira arratsaldean. Urtarrilaren 2an egingo dute kros ezagunaren 81. edizioa aurkezteko ekitaldia udaletxean (12:30). Han jakinaraziko dute Mintxeta taldekoek zein diren aurten etorriko diren atleta esanguratsuenak. Krosaren bezperan, urtarrilaren 4an, atletei harrera ofiziala egingo diete Kalegoen plazan, 19:30ean.



San Anton Pilota Txapelketa, urtarrilaren 3an, 10ean eta 17an

Lagunak Pilota Eskolak antolatuta, San Anton Pilota txapelketa jokatu dute urte hasieran Ikastolako frontoian: emakumeen Lau t'erdiko txapelketa eta gizonezkoen binakakoak jokatu dituzte; promesa eta

nagusien kategoriakoak. Partiden ordutegia aurreratu dutela da berritasun nagusia, 19:00etan jokatu baitituzte. Urtarrilaren 3an eta 10ean jokatu dituzte finalerdiak eta San Anton Egunean izango da finala.

GABON ZORIONTSUAK!



Matsaria kalea, 10-2º Eibar
Tel. 623441405
grabadoslaser2d@gmail.com



Garaikurrak, dominak,
larruzko etiketak, QR
kodeak...



Eguberri zoriontsuak eta urte berri on!

*Neguaeren bihotzean, Gabonak!
Poza, familia, lagunak...
elkarri opa dizkiogun hitz onak,
irribarre eta zorionak.
Jatorri guztietako pertsonak,
bertako zein atzerriko hiztunak,
bildu eta egin gaitezen euskaldunak!*

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

Aita Agirre, 3, 3. solairua - Elgoibar - 943 742 731
udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus



LANA

Eskaerak

Garraiolari moduan egingo nuke lan. 616 828 320

Adinekoak zaintzeko prest nago. Beste edozein lan ere egingo nuke. 654 938 957

Adinekoak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 643 505 827

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, nahiago gizonezkoekin. 614 114 360

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan, etxeko langile moduan edo bestela. Asteburuetan lan egiteko prest. 643 505 662

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxe zein lantegietan. Sukalde laguntzaile moduan ere egingo nuke lan. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest. 604 205 271

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, etxe zein lantegietan. Sukalde laguntzaile moduan ere egingo nuke lan. Esperientzia daukat. Berehala hasteko prest. 643 708 616

Eskola partikularrak ematen ditut, LH eta DBH mailetan. Etxeko lanak egiteko laguntza eskaintzen da. 626 420 080

Adinekoak zaintzeko eta etxeko garbiketak egiteko prest nago, orduka. Titulu soziosanitarioa daukat. Berehala hasteko prest. 638 857 100

Adinekoak zaintzeko prest nago. Esperientzia handia daukat. 688 857 566

BESTELAKOAK

Ezkontza eraztun bat agertu da Aita Agirreko kultur kafean. Falta igarri duenak tabernan izango du zain.

Merkatu txikiko iragarkiak bi astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€.
Iragarkiari erretratua jarritz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€.
Iragarkiari erretratua jarritz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Euzkoako Enkainak Administrazioaren
Lurralde Komunitateak



**ROSA Mª
PINTADO**

Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679

rosapf@telefonica.net

Jakin nahi nuke garaje-plaza baten zati bat itxi daitekeen trasteleku bat egiteko eta sotoan dauden trastelekuen jabeek pasabide-gastuak ordaindu behar dituzten.

Garaje-plaza baten zati bat itxeko jarduketa horiek Higiezia Eratzeko Tituluak edo Komunitatearen Estatutuek babesten dituztenean izan ezik, Jabeen Batzordearen onspena izan beharko dute, aho batez. Garajearen dauden trastelekuen jabeek pasabide-gastuan duten partaidetzari dagokionez, legeak ezartzen du jabe bakoitzarentzat nahitaezkoa dela gastu komunetarako ekarpena egitea, titulu eratzailean ezarritako partaidetza-kuotaren arabera. Zerbitzu bat ez erabiltzeak ez du esan nahi ordaindu behar ez denik. Beraz, estatutuetan edo titulu eratzailean kontrakorik ezarri ezean, trastelekuen jabeek pasabide-gastuak ordaindu beharko dituzte, partaidetza-kuotaren arabera.

Ondorioa: Uste bada ere, obra horiek ez dutela eraginik eraikinaren egituraren edo segurtasunean, eta ematen badu ere ez dutela kanpoko konfigurazioa aldatzen ere, garajearen erabilera arrazionalari eragiten diote. Garajearen gainean elementu definitzaile batzuk daude, hala nola, sarrerak, irteerak, zirkulazio-erreak, instalazio elektrikoak, eta abar. Elementu horiek desnaturalizatuta geratuko lirake itxitura horiek egitea baimenduz gero.



AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Hurrengo alea urtarilaren 10ean kaleratuko dugu. Argazkiak **urtarrilaren 8rako**, eguerdia (12:00ak) baino lehen, ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Lea!**
Urtea bukatzeaz dagoela, zure 6. urtea hasiko duzu. Primeran ospatuko dugu denok batera. Maite zaitugu.



Zorionak, **Nora!**
Muxu handi bat Eleneren eta etxekoekin partez.



Zorionak, **Igor!**
Hilaren 30ean 11 urte! Muxu bat, familiakoekin eta bereziki, arreba Idoia eta Mikel eta Nerea lehengusu-lehengusinen partez.




Zorionak, **Jakes!**
Azkenean, bi! Primeran ospatuko dugu abenduaren 27an. Pila-pila maite zaitugu.



Zorionak, **Alex!**
Zure eguna iritsi da! Ondo ospatuko dugu! Asko maite zaitugu. Muxu bat etxekoekin partez!



Zorionak, **Sare,**
asteartean 2 urte beteko dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko guztion partez.



Gaurtik hasita ospatuko ditugu zure 8 urteak! Umorez eta alai, zorionak, **Unai!**



Zorionak, **hirukote!** Asko maite zaituztegu.



Zorionak, **June,** laster 4 urte beteko dituzulako. Patxo handi bat familiakoekin, eta bereziki, Unairen partez.

Zinea Herriko Antzokian

'Marco'

21 zapatua: 19:00 / 22:15
22 domeka: 19:00
23 astelehena: 21:00

'Superklaus' (Euskaraz)

22 domeka: 16:30

'Gladiator II'

27 domeka: 19:00
28 zapatua: 19:00 / 22:15
29 domeka: 19:00
30 astelehena: 21:00

'Guardianes en la ópera'

29 domeka: 16:30

'Red one'

3 barikua: 19:00
4 zapatua: 19:00 / 22:15
5 domeka: 19:00
6 astelehena: 21:00



20 BARIKUA

18:30 Tertulia: 'Aulki hutsak'. Almaur elkarteak antolatuta, Iñaki Arregik gidatuta. Eguberrietan mahaian falta diren horien hutsunea kudeatzen laguntzeko saioa. Kultur Etxean.

20:00 Antzerkia: 'Ilargiaren eta desioaren artean'. Taupadaren eskutik, Herriko Antzokian.

20:00 Presoen eskubideen aldeko Olentzeroren kalejira. Kalegoen plazatik. Kantaldia ere egingo dute.

21 ZAPATUA

16:00 Mus Txapelketa, Elgoibarko Batzokian.

17:00 Parrokiako jaiotza mekanikoa zabalduko dute. Urtarrilaren 19ra arte egongo da ikusgai.

17:00 San Tomas Eguna, Altzolan, Olentzero eta Mari Domingirekin. Altzolako Auzo Elkarteak antolatuta. Informazioa: 635 753 447

17:00 Haur Krosa, Mendaron. Mendarozabalen hasita. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

18:30 Gemma Monrealen erakusketa ikusteko azken eguna. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

22 DOMEKA

11:00 Emakumezkoen xake txapelketa. Zubi Ondo elkarteak antolatuta, Aita Agirre kulturgunean.

23 ASTELEHENA

18:00 Gimnasia erritmikako erakustaldia. Olaizaga kiroldegian.

18:00 Beti Sua txarangaren kalejira, Santa Ana kaletik.

24 MARTITZENA

10:00 San Lazaro egoitzara eta Eguneko Zentrora bisita kantuan, Atxutxiamaikarekin.

11:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira. Atxutxiamaikak antolatuta, Maalatik.

11:00 Elgoibarko Izarrak tonbola eta txosna zabalduko ditu. Kalegoen plazan.

12:30-14:30 Eskutitzak jasotzea, elizpean.

13:00 Udal Musika Bandaren kalejira. Maalatik.

17:00 Olentzero eta Mari Domingiren kalejira, Mendaron. 18:30ean, harrera, udaletxean.

26 EGUENA

18:00 Biraka dantza taldekoen emanaldia. Santa Ana kaleah hasita. Kalez kale ibilita, Kalegoen plazan amaituko dute.

20:00 Eguberrietako bertso jaialdia. Elgoibarko Izarrak antolatuta, Herriko Antzokian.

27 BARIKUA

10:00 Eibarko ertzain etxera bisita. Altzolako Auzo Elkarteak antolatuta. Informazioa: 635 753 447

18:00 Mauxitxa txarangaren kalejira, Santa Ana kaletik.

20:00 Presoen aldeko kalejira. Kalegoen plazatik Maalara.

30 ASTELEHENA

21:00 Euskadiko idi kintopekoen finala. Sigmako probalekuan.

31 MARTITZENA

17:00 San Silbestre lasterketa. Catt Morkaikok antolatuta, Kalegoen plazatik.

17:00 San Silbestre lasterketa Mendaron. Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatuta.

3 BARIKUA

11:30-13:30 / 16:00-19:00 Txu-Txu tren, kanean zehar. Txankakuak antolatuta.

19:00 San Anton Pilota txapelketako partidak. Elgoibar Ikastolan. Lagunak Pilota Eskolak antolatuta.

4 ZAPATUA

19:30 Mugertza krosean parte hartuko duten korrikalariei ongietorria. Kalegoen plazan.

5 DOMEKA

10:00 **etatik aurrera** Mugertza krosa. Mintxetan.

18:00 Errege Magoen desfilea. Santa Klaratik.

18:00 Errege Magoen desfilea, Mendaron. Presapen hasiko da eta Trinitaten egingo diete harrera.

6 ASTELEHENA

10:00 Dultzaineroen diana. Kaleetan zehar.

11:30 Kristau ikasbidekoen meza. San Bartolome parrokian, Errege Magoekin.

12:30 Udal Musika Bandaren kontzertua. Herriko Antzokian.

8 EGUAZTENA

19:30 Epeletan literatura tailerra. Olatz Mitxelenaren 'Arrain hezur bat' liburua landuko dute, Ainhoa Aldazabalekin. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

GABON ZAHAR FERIA

ABENDUAK 28, ZAPATUA

08:30etik 14:30era:

- Kalegoen plazan: barazki eta fruta erakusketa, lehiaketa eta salmenta.
- Elizpean: bertako produktuen erakusketa eta salmenta. Gazta eta ezta.
- Aita Agirre plazan: bertako produktuen, lanabesen eta landareen erakusketa eta salmenta.
- Giza Eskubideen parkean: bertako produktuen erakusketa eta salmenta.
- Bolatokiko parkean, Lekuederren eta Kalebarren plazan: hainbat abereren erakusketa eta bertako produktuen salmenta. Pedro Migel Urruzunon: burdineria eta nekazaritza-makineria.

09:00etatik 20:00etara: Parrokiako Jaiotza, parrokiako kaperan.

10:00etatik aurrera: Baltzola eta lagunak trikitilarien kalejira.

10:00etatik 14:30era: Elgoibarko Artalde taldeko artisauen erakusketa eta salmenta, Maalako parkean.

11:30etik aurrera: Elgoibar Ikastolak, Eusko Labela duten harakinen laguntzarekin (Armua, Patxi eta Ziarda), labeldun saiheski pintxoak eskainiko ditu, Kalebarren plazan.

12:00etan: Urteko Gazta onena aukeratzeko XVI. Txapelketa: Elgoibarko Gabon Zahar Saria 2024 Udaletxeko Areto Nagusian, Kalamua Elkartek antolatuta. Lehiaketak irauten duen bitartean, areto nagusian, bertsolarien jardunaldia.

12:30ean: Lekueder parkean, Plazara dantzara erronomia. I. Bereziartua Musika eta Dantza Eskolak antolatuta.

13:00etan: Bertsolariak udaletxeko areto nagusian.

13:30ean: Udaletxeko areto nagusian, fruta, barazki eta gazta lehiaketaren sari banaketa.

19:00etan: Kittu taldeak herriko kaleak girotuko ditu. Irteera: Kalegoen plazatik.

HAUR PARKEAK

27 BARIKUA

16:00-20:00

Haur parkea, Mendaron. Ikastolako patioan.

URTARRILAK 3, 4 ETA 5

11:00-14:00/16:30-19:30

Haur eta nerabeentzako parkea, Elgoibarren. Lekuederren.

2023 eta 2024ko botika ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

ABENDUA

- 20 BARIKUA
- 21 ZAPATUA
- 22 DOMEKA
- 23 ASTELEHENA
- 24 MARTITZENA
- 25 EGUAZTENA
- 26 EGUENA
- 27 BARIKUA
- 28 ZAPATUA
- 29 DOMEKA
- 30 ASTELEHENA
- 31 MARTITZENA

URTARRILA

- 1 EGUAZTENA
- 2 EGUENA
- 3 BARIKUA
- 4 ZAPATUA
- 5 DOMEKA
- 6 ASTELEHENA
- 7 MARTITZENA
- 8 EGUAZTENA
- 9 EGUENA
- 10 BARIKUA

Egunez

- Garitaonandia
- Arriola
- Arriola
- Fernandez
- Barrenetxea
- Barrenetxea
- Arriola
- Soto
- Garitaonandia
- Garitaonandia
- Arriola
- Garitaonandia
- Egunez
- Garitaonandia
- Oruesagasti
- Barrenetxea
- Soto / ■ Arriola
- Soto
- Arriola
- Arriola
- Fernandez
- Yudego
- Oruesagasti

2023 urte guztian, gauez: 22:00-09:00

Cristina Sanchez Castaño -

Julian Etxeberria, 7 (Eibar) - 943 203 052

2024 urte guztian, gauez: Lekunberri Alberdi,

Mikel Isasi, 31 (Eibar) - 943 204 230

■ Fernandez:
Herriko
Enparantza,4
Garagartza
(Mendaro)
943 756 142

■ Soto
Rekalde, 1
(Soraluze)
943 751 638

■ Oruesagasti:
Kalebarren, 9
(Soraluze)
943 751 384



Angel Bazterretxea (Mutriku, 1936-Mendaro, 2019) 54 urtez Mendaroko abade izandakoaren argazki-bildumako argazkia da gaur atal honetara ekarri duguna, Bartzelonan Agustindarren komentuan 1992. urte aldera ateratakoa. Argazkian Bazterretxea bera ageri da mozej inguratuta, eta mojen artean Mendaroko Agustindarren komentuan egondakoak identifikatu ditugu, hainbat eliztarren laguntzarekin. Ikus dezagun nortzuk diren: Ezkerrerengo, Mendaron *Txilena* ezizenez ezagutzen zutena, eta haren ondoan, Mendaroko Gartzianeko Juana Azpiazu, identifikatu gabea eta Bazterretxea bera. Behean, Txilenaren ondoan, Klara, Isabel, Inmaculada, eta identifikatu gabea. Eskuinean, tente, Gemma, eta makurtuta, identifikatu gabea.



b
barren

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

943 743 704
688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

Goldetu
prezioak
eta gustura
erantzun
dizugu.

 **Maria Urizar**
Ileapaindegia • Peluquería

943 74 44 89

San bartolome kalea, 15
20870 Elgoibar

**Gabon
zoriontsuak!**



ÂNDARA

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK



Zorionak eta urte berri on!

Anahi de la Cruz

M: 688 724 122

Bernardo Ezenarro kalea, 15 behea - Elgoibar

info@andaragestion.com

688 724 122 / 943 748 427

MURUA GOZOTEGIA

943 73 22 39



GOURMET DENDA

943 74 26 52



**¡GABON HAUETAN
GUREKIN OPARITU!**

**DOMINIA
MERCEDES**

Euskalki saltsa II

Anjel Ugarteburu



Mendebaleko euskalkian *neba-arrebak* esaten da. Gurean, zehazki, 8 mutil eta 9 neska: 17 neba-arreba. Nire arrebek 8 neba eta nik 9 arreba. Jakina da elizetako hitzaldietan abadeak - **Anaia-arrebok!** esanez hasten zuela bere sermoia. Hala tokatzen zen bera gizonezkoa izanda. Kontua da, horregatik edo, neba galdu eta nire arrebentzat familian 8 gutxiago garela. Neskak ahizpak izan ditzake baina ez anaiarik euskalki horretan. Horrela, anaia, ahizpa, arreba eta neba zirenak nebarik gabe geratu dira. Gorde denari iraupena ematea ez al zen zuzenena?

Badugu euskaraz kontuz erabili beharreko hitz bat. **Nabarmen** hitzak badu (edo izan du) halako zentzu berezi bat euskaldunon artean, lotsarekin lotzen duena. Jende aurrean biluztea bezalakoa. *Sobresaliente* notaren baliokidetzat erabilia izan da.

Eibarko Armeria eskolako ikasle baten kontua ei da hau. Arrate bailarako mutil bat, jator askoa bera, Armeria eskolan hasi da ikasketak egiten eta notak jasotzeko orduan *sobresaliente* han eta *sobresaliente* hemen, erakutsi du buletina etxean eta ekaitza lehertu: - *Sobresaliente!* Zer egin dok? Zertan ibili haz?- Kezkatuta gurasoak. Nabarmenaren baliokide sobresaliente.

Horren harira, soldautzara joan nintzenean eman zidaten aholkua datorkit gogora: *Soldautza ondo pasatu nahi badok ez hadi nabarmendu inondik*. Instrukzio egiteko lerroaren erdi aldean kokatu. Lehenengoak belarriondokoak hartzen ditu eta azkenengoak ostikadak. Arerioaren esparruan hobe oharkabeen pasatu.

Belarriondokoaren hotsak beste pasadizo bat dakarkit gogora, neure jaiotetxean bertan entzuna hau. Gure baserrira buztarriginak etortzen ziren hala behar genuenean. Buztarria edo uztarria (*yugo*) funtsezkoa zen idiek edo behiek gurdia garraia zezaten. Nire akorduan buztarrigin bi etorri ziren gurerara: Markina aldean

Iturreta auzoko *Erlatx* baserriko Juan Ibarzabal izan zen bat, bertsolaria ere bazena (Nerearen aitaren osaba). Aitak alde z aurretik etxe ondoko putzuan beratzen jarritako pago-enborra lantzen zuen Erlatx horrek. Gu, neska-mutikook, hantxe, zizelarekin ertzak zelan berdintzen eta uztarriari itxura ematen zion adi. Berritxuko Gardotza auzoko Andramarixe etxekoa ere izan genuen inoiz uztarrigile. Anaia batek kontatzen zuenez, hari entzuna da hurrengo hau:

Uztarrigileak aste oso bat pasatzen zuen bere lan horretan eta bere etxetik urrutiko enkargua zenean aste osoa egoten zen, jan eta lo. Ardremarixe horrek kontatzen zuenez, Gipuzkoako Goierri aldetik etorri zitzaion behin uztarria egiteko enkargua.

Hasi da lanean eta lehen gauean, bapo afaldu ondoren, etxeko andreak oherako bidea erakutsi ziola eta galdetu: - *Belarriondoko bat ala bi nahi dituzu?* - uste gabeko galdera. - *Belarriondokorik ez, koño! Bat bera bez.*

Ulertuko zenutenez, herri hartan belarriondokoa zen almuda edo guk burukoa izendatzen duguna. Hurrengo egunetan belarriondoko eta guzti egin zuen lo.



Gorde erosketa-tiketa.



Gabonetan
**EZ IZAN
TXORIBURU**

Kontsumitu buruarekin
Eta zalantzarik baduzu,

kontsumobide.eus



#KontsumitzenJakin



kontsumoBIDE
KONSUMOKO BIRIAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CONSUMO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Gabon zoriontsuak guztioi!

